

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko martxoaren 23a • II. urtea • 15. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka^{2a}

Gure inguruan dauden eta egongo diren museoak

KIROLAK

Abian da, joan den astetik, Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketa /10

PILARE PEREDA

"Estatu Batuetan norbait izan behar da errudun. Oraingoan, Pablori egokitu zaio" /9



San Prudentzioko biribila egiten hasiko dira berehala

Oñati, Bergara eta Arrasateko udalerrak banatzen dituen San Prudentzioko bideturte zeharo birmoldatzen hasiko dira aurki, eta bideturte horri zubi berri bat erantsi eta biribil bat eraikiko dute. Lan horien baitan, era berean, San Prudentzio eta Epele arteko errepidea zabaltzeko eta hobetzeko asmoa ere badute. Bestalde, Aretxabaleta eta

■ *Oraingo zubitik gertu, beste bat eraikiko dute, bien artean biribila osatzeko.*

Eskoriatza artean egiten diharduten biribila ia bukatuta dago. Egitasmo horrek Eskoriatzako industrialdeei, Almen ikastetxeari eta Ederlan enpresari sarre-

■ *San Prudentziotik Epele arteko bide zatia ere konpontzen hastear daude.*

rak eta irteerak ahalbideratu nahi dizkie.

Era berean, Eskoriatzako irteeran, Arlaban edo Leintz Gaztagarantz joateko bideturte-

■ *Eskoriatzako eta Aingeru Guardako biribilak laster amaituko dituzte.*

an bertan -Aingeru Guardan-, beste biribil bat eraikitzen dabil-tza, eta laster bukatuko dute: asmoak betetzen badira, Aste Santurako. /2-3

BERGARA

Angiozarren ospatuko da Gipuzkoako Eskola Txikien eguna

Gipuzkoako Eskola Txikien eguna Bergarako Angiozar auzoan ospatuko dute aurten. Eskola txikien jai handi hori ekainaren 10ean izango da. Hala ere, bihar, zapatua, aurkeztuko dute. Gipuzkoa osoan 27 eskola txiki daude, eta horietatik bi Debagoienean: Angiozarren eta, iaiztik, Elgetan.

Eskola Txikien eguna ospatzearan helburu nagusia da Euskal Herri osoari erakustea herri txikiek bizirik dirautela, eta horren euskarrietako bat eskola txikiak direla. /4



Zoramena Atxabalpen

Hori zoramena eguztzen arratsaldean Atxabalpen. Izan ere, Arrasate Kirol Proiektuaren 10. urteurrena dela eta, Reala eta Osasuna hurbildu ziren Mondragoera. Ez bata eta ez bestea, ez dabilta fin, baina futbol izarrak norberaren herrira ez dira sarritan hurbiltzen. Neska-mutikoz eta, oro har, txuri-urdin zalez bete zen Atxabalpe. Partidua kaskarra izan zen, baina hori gutxienezkoa zen. Azkenean, bana bukatu zuten. Osasuna aurreratu zen Riveiroren golari esker, eta Alberto Alejandrok sartu zuen berdinketaren gola. /ENKO AZKARATE

Deba arroan tranbia jartzeko proiektua aurrera doa

Jaurlaritzak aintzat hartu du Deba arroan tranbia jartzeko proiektua eta bultzatzeko oso interesatuta dago. Eguaztenean Bergarako Udaletxean elkartu ziren Alvaro Amann Garraio eta Azpiegitura sailburua eta Debagoieneko eta Debabarreneko alkateak.

Sailburuak proiektuaren gaineko zehaztasunak eman dizkie alkateei. Hiru alditan eraikiko

lukete tranbia. Bergara-Oñati-Arrasate ardatzak izango luke lehentasuna, eta herri horietatik beste adar batzuk eraikiko lituzkete (Bergaratik Antzuolara eta Elgetara, eta Arrasatek Aretxabaleta eta Eskoriatzara). Hurrengo aldian, Sorluzeraino joango litzateke tranbia eta, ondoren, Debara eta Mutrikura. Deba arko tranbia Bilbokoa baino erren-tagarriagoa izango litzateke. /3

Gure Bailarako Patxarana



ARBASO[®]
PATXARANA

BERTAKOIA, NATURALA.

Errepideekin

Geure errepideetan obrak abian daude, eta beste batzuk berehala hasiko dituzte

IKER BARANDIARAN

Etengabe hazten eta hazten diharduen auto kopuruaren eta horrek eragindako zirkulazio ikaragarriaren erruz, tamaina handiko lanak egitea aurrez ikusita dago, oso epe laburrean, gure bailarako errepide eta inguruetan. Horien artean, Oñati, Bergara eta Arrasateko udalerrriak aspaldidanik banatzen dituen San Prudentzioko bidegurutzeara zeharo birmoldatzen hasiko dira aurki, eta bidegurutze horri zubi berri bat erantsi eta biribil bat eraikiko dute. Lan horien baitan, era berean, San Prudentzio eta Epele arteko errepidea zabaltzeko eta hobetzeko asmoa ere badute. Bestalde, Aretxabaleta eta Eskoriatza artean egiten diharduten biribil berria ia bukatuta dago. Egitasmo horrek Eskoriatzako industrialdeei, Almen ikastetxeari eta Ederlan enpresari sarrerak eta irteerak ahalbideratu nahi dizkie.

Era berean, Eskoriatzako irteeran, Arlaban edo Leintz Gatzagarantz joateko bidegurutzearan bertan -Aingeru Guardan-, beste biribil bat eraikitzen dabilta,

eta laster bukatuko dute. Lan horiez gain, eta Eibar-Gasteiz autobidearen lan erraldoiak ahaztu gabe, gertu dator, laster baten egiten hasiko diren Bergara ekialdeko saihsibidea, Beasain-Durango autobidearen ardatz bilakatuko dena, eta Gipuzkoako Aldundiak autobidearekin halabarrez lotu gura duena. Zalan-tza barik, azpiegitura horiek guztiek eragin handia izango dute gure artean, batzuen ustez, onerako, eta beste batzuen ustez, txarrerako.

BERGARAKO EKIALDEKO SAIHSIBIDEA

Beasain-Durango zeharkako korridorearen atal bat osatuko du saihsibide horrek. Lanaren bultzatzaile nagusi Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkarien esanetan, Beasain-Durango ardatzaren zatia den neurrian, eskualde eta lurraldeak lotzea du helburu, eta gero-gera, Antzuola eta Zumarragara ere luzatzeko asmoa dute. Era berean, Zaldumendiko lotu-nearen bidez, Eibar-Gasteiz autobidearekin lotura izango du halabarrez.

Bergarako ekialdeko saihsibidea, Galartzatik Telleriako lotu-nera arte luzatuko da (2,1 Km). Lan

horiek Mariezkurrena Eraikuntzak SL enpresari adjudikatu dizkiote, eta zuzentza, 3.045 milioi pezeta aurrekontua dute. Duela oso gutxi arte, jendaurreko erakusketan egon da egitasmoa, eta laster hasiera emango zaio.

Bailarako EHK desadostasuna erakutsi du, betidanik autobia-saihsibide horren beharra aldarrikatu badu ere, bi errekoa baino, laukoa izatea eskatu izan dute bailarako udalek eta Mankomunitateak ere). Horrez gain, autobidearekin loturak ez izatea ere aldarrikatu izan du EH taldeak.

SAN PRUDENTZIOKO BIRIBIL BERRIA

San Prudentzioko bidegurutze nahaspilatsua zeharo birmoldatzeko lanak datorren astean bertan hasiko dituzte. Hain zuzen ere, orain dagoen zubiaz gain, beste berri bat eraikiko dute -hongo-gandik 30 metrora-, eta bien artean biribil bat, hantxe biltzen den zirkulazio guztia bakoitza bere norabidean hobe bideratzeko asmoarekin.

Hortaz, gaur egungo zubia norabide bakarrekoa izango da, Arrasatek Oñatira aldekoa. Eta

aldiz, Arrasatek Bergarara joan nahiz gero, zubi zaharretik biribilean barrena ibaia gurutzatu eta beste zubitik irten beharko da. Eta Bergaratik Arrasatera joan gura dutenak ez dira biribilean sartu behar izango.

Egitasmo beraren barruan, Epele eta San Prudentzio arteko errepidea hobetu eta zabaltzeko asmoa ere badago; horretarako, Deba erreka mugiarazi eta inguruko zuhaitz ugari mozten hasi dira. 409 milioi pezeta inguruko aurrekontua daukan egitasmoa sei hilabetean bukatzea espero du Aldundiak, eta ingeniariaren ustez, ez dira egunez erreiak moztuko lanen bukaera alde arte.

AINGERU GUARDAKO BIDEBURUTZEA

Eskoriatza, Arlaban eta Leintz Gatzaga banatzen dituen bidegurutzeara, Aingeru Guarda hain justu, ere birmoldatzen dabilta azkenaldian. 2000ko irailean lanak hasi zirenetik, oso aurreratuta daude, eta Foru Aldundiko iturrien esanetan, dena ondo joanez gero, apirilaren bukaeran bukatuta egongo dira.

Izan ere, 175,5 milioi pezeta aurrekontua duen lan horren baitan, biribil berriaren erdigu-

nea eraikitzea besterik ez da falta. Bestalde, Arlabandik Aretxabaleta edo Arrasaterantz doaztenek ez dute biribilean barnatzeko beharrik izango, beste guztiek, ordea, bai. Egitasmoaren arduradunen esanetan, azpiegitura horren bitartez, orain arteko bidegurutze nahasiaren arazoak saihestu egingo dira.

INDUSTRIALDEEN BIRIBILA

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidean, Eskoriatzako industrialdeen alboan biribil bat eraikitzen dihardute azken bi hilabeteotan. Izan ere, horren bitartez, Torrebaso eta Esteibarreko industrialdeei, Almen ikastetxeari eta Ederlan enpresari irteerak eta sarrerak erraztu ahal izango dizkiete hil honen bukararako.

Lan hori, guztira 33 milioi pezeta inguruko aurrekontua daukan, bertako industrialdeen finantzatu dute osorik; azken baten, eurek erabiliko dute. Era berean, egitasmoa bera eta bidegurutzeko asmoa industrialde berriekin batera jaio ziren, baita hainbat arrazoi direla medio atzeratu behar izan zuten orain gutxi arte.



EKIALDEKO SAIHSIBIDEA

Bergarako ekialdeko saihsibidearen, Beasain-Durango autobidearen atala, egitasmoa erakusketan publikoan egon da orain dela gutxi arte. 3.045 milioi pezeta aurrekontua du eta Foru Aldundiak hartu du osoki.



ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEKO BIRIBILA

Eskoriatzako zenbait industria batu, eta Torrebaso edo Esteibar industrialdea eta Almen ikastetxea eta Ederlanendako irteerak eta sarrerak errazteko biribil berria finantzatu eta ia guztiz bete berri dute.



AINGERU GUARDAKO BIRIBILA

Eskoriatzako saihsibidearen muturrean, Leintz Gatzaga edo Arlabanera jotzeko bidegurutzearan, hainbat norabide ahalbidetzeko biribila eraikitzen dihardu Aldundiak, eta apiril aldean bukatzea espero du.

Weltaka


■ San Prudentzioko biribila eta horren eta Epele arteko errepidearen hobetze eta zabaltzeak sei hilabete iraungo du

■ Bergara ekialdeko saihesbidea, udalerriko muturrak lotzeaz gain, Beasain-Durango autobia-
ren ardatz ere bada

■ Eskoriatzako industrialdeen irteera eta sarrerak errazteko biribila ia prest dago, xehetasun gutxi batzuen faltan

San Prudentzioko biribil berria

San Prudentzioko bidegurutzea da eskualdeko errepide-punturik beltzenetakoa. Sekulako nahaspila eta auto iladak sorrarazten ditu, batez ere bailarako hiru herri nagusien, hau da, Arrasate, Bergara eta Oñatiren, arteko bidegurutzea delako. Aspaldian zebilen Aldundia arazoari konponbidea aurkitu nahian eta biribila egiteko hainbat lur mugitzeko azterketa ere egin zen. Azkenean, Deba erreka-
ren gainean zubi berri bat egitea bururatu zitzaion norbaiti eta irtenbide egokia izan dela dirudi. Oraingo zubiaz gain, beste bat eraikiko da eta bien artean biribila osatuko da (erroskila baten itxurakoa). Lanak datorren astean hasiko dituzte.



SAN PRUDENTZIOKO BIDEGURUTZEA ETA EPELE ARTEKO BIDEA MOLDATZEA

Datorren astean, Bergara, Oñati eta Arrasate banatzen dituen bidegurutzea erabat birmoldatzeko egitasmoa abian jarriko dute. Oraingo zubiak mantendu eta beste bat eraikiko dute, eta bien artean, Deba ibaiaren gainean biribil bat egituratuko dute. Horrez gain, Epele eta San Prudentzio arteko bidea hobetu eta zabaltzeko asmoa ere badute, horretarako argazkian ikus dezakezuen bezala - inguruetakozuhaitz ugari edonola botatzen hasi badira ere.

Bailaran, labur

AZPIEGITURAK

Deba arroan tranbia jartzeko asmoa azaldu die Alvaro Amannek alkateei

Deba arroan tranbia jartzeko egitasmoa aurrera doa. Jaur-laritzak aintzakotzat hartu du proiektua eta bultzatzeko oso interesatuta dago. Eguaztenean Bergarako udaletxean elkartu dira Alvaro Amann Garraio eta Azpiegitura sailburua eta Debagoieneko eta Debabarreneko alkateak. Sailburuak proiektuaren gaineko zehaztasunak eman dizkie alkateei. Hiru fasetan eraikiko lukete tranbia. Bergara-Oñati-Arrasate ardatzak izango luke lehentasuna, eta herri horietatik beste adar batzuk eraikiko lituzkete (Bergaratik Antzuolara eta Elgetara, eta Arrasatetik Aretxabaletara eta Eskoriatzara). Hurrengo fasean, Soroluzeraino luzatuko litzateke tranbia eta, ondoren, Debara eta Mutrikurara. Alvaro Amannek alkateei adierazitakoaren arabera, Deba arroko tranbia, Bilbokoa baino errentagarriagoa izango litzateke. Bestalde, gaur egun Debagoienean autoa edo autobusa erabiltzen dutenen %20k tranbia erabiliko balu bideragarria izango litzateke proiektua. Asmoa da lehenengo trenbide zaharra erabiltzea, ahal den heinean. Edozelan ere, herrien barrutik igaroko litzateke tranbia. Sei hilabete barru aurreproiektua eginda eta bi urte barru proiektua bukatuta egotea aurreikusi dute. /ENEKO AZKARATE

HAIKA

Xabier Arregi torturapean deklaratzera behartu dutela salatu dute

Torturapean, behartuta, esan dituen gezurrek kanpokoengan izan ditzaketen eragina" da Xabier Arregi "Txapi"-ren kezka nagusia, bere anaiak Goienkariari adierazi dioenez. Arregi hilaren 11n atxilotu zuen Polizia Nazionalak Garzonen aginduz. Hiru egun inkomunikatuta izan ostean, inkomunikatuta deklaratu zuen, hilaren 14an, ofiziozko abokatuarekin. Orain, Alcala Mecoko expetxean dago. Garzonek Haikako kide izatea leporatu zion Arregiri hasiera batean. Hala ere, etxea miatu eta Arregi deklaratu ostean, "ez dute ezer aurkitu, eta Garzonek aldatu egin du akusazioa". Orain, Ekineko Bergarako eta Debagoieneko kide izateaz akusatuta dago. /MONIKA BELASTEGI

ENPRESAK

Belen Kortabarría izango da Fagorreko egosketa saileko arduradun berria

Fernando Gomez Acedoren eta Pablo Mongelosen izendapen berriek, aldaketa ugari eragin dituzte Fagor Garagartzan. Besteak beste, Belen Kortabarría izango da egosketa saileko kudeatzaile berria. Fernando Gomez Acedok Fagor Garagartzako gerentzian utzitako kargua, Pablo Mongelosek hartuko du datorren urtean. Hori dela eta, Belen Kortabarría izango da egosketa saileko kudeatzaile berria. Gainera, izendapen horiek guztiek, aldaketa ugari eragin dituzte MCC taldeko lantoki horretan. Ekainaren lehenetik aurrera hauexek izango dira Fagor Elektragailuetako kargu berriak: Belen Kortabarría, Egosketa saileko kudeatzailea; Idoia Ruiz de Azua, Ontzi garbigailuetako arduraduna; Fernando Ipinza, Osagaiak eta Kalitate saila; Juan Andres Juaristi, Finantzak, eta Jose Luis Andres, Giza baliabideak. /GORKA ETXABE

ONCE

50 milioi banatu zituen Bergaran itsuen erakundeak egubakoitzeko zozketan

ONCE itsuen erakundeak joan zen egubakoitzean egin zuen zozketako lehen saria Bergaran tokatu zuen. Hain zuzen ere, 30.443 zenbakiari egokitu zitzaion egubakoitzeko lehen saria, ez ordea, sari berezia, 500 milioi pezetakoa. Irizar kaleko kioskoan egoten den Anastasio Oterok 250 pezetako 10 txartel saldu zituen egubakoitzerako. Honenbestez, 50 milioi pezeta etorri ziren Bergarara, hau da, txartel bakoitzeko 5 milioi. Beste hamar txartel saldu barik itzuli zituen Anastasio Oterok. Saria bederatz lagunen artean banatu zen: batek bi erosi zituen eta gainerako zortziek bana. /E.A.

BERGARA

ESKOLA TXIKIEN EGUNA ANGIOZARRREN

Mila Elortza/ Angiozarko auzo alkatea*“Umeez ez badute Angiozarren ikasten, ez dira euren jaioterriarekin identifikatuko”*

MONIKA BELASTEGI

Gipuzkoako Eskola Txikien eguna Bergarako Angiozar auzoan ospatuko dute aurten. Eskola txikien jai handi hori ekainaren 10ean izango da. Hala ere, bihar, zapatua, aurkeztuko dute.

Zer dira eskola txikiak?

Bi berezitasun nagusi ditu. Bata, kurtsoko bakoitzean, hamar ume baino gutxiago dituen eskola izatea. Bestea, herri txikietan eta hiri handi gabe aparteko auzuneetan kokatuta dauden eskolak. Gipuzkoa osoan 27 daude, eta horietatik bi Debagoienean: Angiozarren eta iaiztik Elgetan.

Koordinadora batean batzen zarete.

Bai. 1970. urtean, Hezkuntza Lege Orokorra indarrean jarri zutenean, kaltegarria izan zen eskola txikientzat. Izan ere, ez zuten betetzen legeak



ezarritakoa, hau da, kurtsoko derrigorrez adin bereko zortzi ikasle izatea.

Lege horren ondorioz koordinadora sortu genuen 70ean. 1987an, Adarra, irakasle elkartea, eskola txiki batzuetako ordezkariekin bildu zen eta

Hezkuntza Sailaren aurrean herri eta auzo txikiek eskolen beharra zutela aldarrikatu genuen. Urte hartan mamitu zen Eskola Txikien jaia, eta 88an lehenengo jaia egin genuen.

Ostean, 1993. urtean, Gipuzkoako gurasoen elkartea sortu zen koordinadora gisa. Beste data garrantzitsu bat 1997. urtea da. Izan ere, “Eskola txikiak bizirik” ordura arteko leloa aldatu egin genuen beste honengatik: “Eskola txikiak bizirik-Herri txikiak bizirik”.

Angiozarren adin ezberdineko haurrek elkarrekin ikasten dute. Positiboa da hori?

Gaur egun 2-10 urte arteko umeak daude. Zortzi denera. Batetik, dauden bi irakasleekin ikasten dute, eta, bestetik, nagusiagoak txikiagoari erakusten dio. Hala ere, badira ikasgai batzuk adinaren arabera aparte irakasten

direnak.

Irakaskuntza guztiz normala da, ez dago alderik ikastetxe handi eta txiki hauen artean. Ikastetxe txikitik handira pasatzen direnean, handiko ikasleen maila bera erakusten dute. Bestalde, kontuan hartu behar da, zortzi ikasle izanik eta bi irakasle, ikasle bakoitzarentzat dedikazio oso handia dagoela. Horrez gain, material aldetik ere, denetarik dago, liburuak, ordenagailuak...

Zein da jaiaren helburua?

Euskal Herri osoari erakusten herri txikiek bizirik dirautela, eta horren euskarri-tako bat eskola txikiak direla. Izan ere, eskolarik gabe herri txikiek ez lukete iraungo. Angiozarko umeak Bergarara jaisten badira eskolara, Bergarako errealitatea biziko dute, ez Angiozarkoa, eta ondorioz ez dira euren jaioterriarekin identifikatuko, ez dute herriaren sena gordeko.

ELGETA

Drogamenpekotasunari aurre egiteko hainbat ekitaldi Osasun Saitetik

IBAN ARANTZABAL

Gurasoendako berbaldiak auzoan latzetik hasi zen guztia, baina hori bere hutsean ez zela nahikoa irizita, liburu ere aurkeztu da. Liburu gaur bertan banatuko da etxeetan, eta hamabost egun geroago, apirilaren 5ean hain zuzen ere, hitzaldi batekin borobilduko da. Drogamenpekotasunaren gaineko hitzaldiak 18:30ean izango da udaletxean.

Zuen seme-alabei droga aurre egiten lagunduko dieten 10 pauso



Eskuliburuaren azala.

ANTZUOLA

HERRIKO LIBURUTEGIA

Liburutegiari buruzko informazioa zabalduko dute*Funtzionamendu arauak azalduko dituzte*

AINTZANE IRIZAR

Herriko liburutegiaren funtzionamenduari buruzko informazioa banatuko du udalak herriko etxe guztietan. Bertan, liburutegiak zer izan behar duen eta zer ez duen izan behar azalduko dute, eta funtzionamendu arauak ere azalduko dituzte. Izan ere, azkenaldian gaztetxoendako topaleku bilakatu da liburutegia. Arduradunen esanetan, “jende asko arratsalde

pasa joaten da liburutegira, beste tokirik ez daukatelako, eta horrek benetako beharra daukan jendeari kalte egiten dio”. Liburutegia ez da inola ere ume edo gaztetxoendako bakarrik, herritar guztiendako baizik. Bertara doan lanak egiteko, ikasteko edo irakurtzeko siltasuna behar du, eta horixe da, hain zuzen ere, arduradunek lortu nahi dutena. Baita liburutegia adin guztietako jendeak erabiltzea ere.



Umeez eta gaztetxoek erabiltzen dute, batik bat, liburutegia.

AINTZANE IRIZAR

OÑATI

MENDIKO BIDEAK

Eskistatik Urbiarainoko pista desagertarazi egingo dute laster*Abeltzainek Iturrigorriko pista egokitzea eskatu diote udalari*

AINTZANE IRIZAR

Datarik zehaztu ez duten arren, aurten egingo dituzte pista hori desagertarazteko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiak egin eta finantzatuko ditu lanak. Pista horrek ingurugiroari kalte egiteaz gain, oso egoera txarrean dago, oso arriskutsu dago. Izan ere, urak lurra darama berarekin, eta bidea zuloz beteta dago. Dena dela, duela sei urte baino gehiagotik itxita dago pista, harri batzuk jarri zituzten-eta, bidea oztopatzeko. Hala ere, orain guztiz desagertaraziko dute.

1970eko hamarkada hasieran egin zuten pista hori. “Fraga pista” bezala ere ezaguna da. Izan ere, Manuel Fraga Urbiara joateko egin zuten bide hori. Garai hartan Informazio eta Turismo ministroa zen, eta Urbiaraino nazional bat egiteko asmatan ei zebiltzan.

Orain, Urbiaraino autoz joan ahal izateko beste pista bat egokitzekeo ideia darabilte buruan udaleko arduradunek. Izan ere, Arabatik badago bide bat, baina



Eskistan hasten den pista oso hondatuta dago.

Oñatitik ezinezkoa da autoz Urbiaraino heltzea. Kontuan hartu behar da artzain eta abeltzain askok dituztela euren txabola eta abereak Urbiaraino inguruan. Hori dela eta, udalari Iturrigorriko pista egokitzekeo eskaera egin diote. Udaleko arduradunek azal-

du digutenez, “pistak hartzen dituen lurak erostea litzateke lehendabizikoa, eta Diputazioa laguntzeko prest azalduko da. Dena dela, pista hori egiteko ere, kontrol sistema jarriko dute, edozeinek ezingo luke pista hori erabili.

ESKORIATZA

UDABERRIARI ONGIETORRIA

Ongietorri antimilitarista emango diote udaberriari EGASen eskutik

INIGO BIAIN

Udaberriaren hasiera berez here-negun, martxoaren 20an izan nuzen ere, Eskoriatzan, bihar, zapatua, egingo diote ongi-etorria urtaro berriari. Izan ere, EGASek, hau da, Eskoriatzako Gazte Asanbladak, Udaberri Festa antolatatu du biharko egun oso-rako. Egia esan, jaialdia aurre-ko urteetan ere ospatu dute, bai-na ez udaberriari ongi-etorri bezala, Festa Antimilitarista bezala baizik. Hala ere, bihar-koak ere izango du kutsu erre-ibindikatiboa, baina mezu nagusia udaberriaren etorrera izan-go dute.

Hainbat ekitaldi izango dira egun horretan, baina aipa-garrienak eguerdian hasiko dira. Ordu batean triki-poteoari hasiera emango diote. Barrenak berotu ondoren, eta goseari bidea irekita, herri bazkaria izango da txiste kontalari-ek eta trikitalari-ek gozatu-ta, eta urdailak ase-

tzeko menu ezin hobeak gozotu-ta: arrain zopa hasteko, gero erredondiloa, eta postrea amaitzeko. Bazkalondoko giroa ere animatua izango da, zalantza barik, horretaz arduratuko baitira txiste kontalari eta trikitalariak.

Arratsaldeko 6etan kontzertuak hasiko dira herriko hiru tabernatan. Alde batetik, Naira tabernan, punk-rock doinuekin giroa piztuko duen Oñatiko Golpe de Estado taldea arituko da. Aldatz tabernan, bestalde, Anger mondragoetarrek, euren azkenaldiko arrakasta ez dela kasualitatea erakutsiko dute; eta azke-

nik, Alehop taldea izango dugu Cipris tabernan, eta talde horrek musika modernoago eta dantzagarragoa landuko du.

Hala eta guztiz ere, musikaren arloa ez da hiru kontzertu horiekin bukatuko; izan ere, geroxeago, gaueko 10etan, hain zuzen ere, kalejira-txikiteoa izango da perkusio txaranga batekin.

Zertzelada

Urteroko Jai Antimilitarista, aurtengoan udaberri-jantzi datorkigu; kutsu erreibindikatiboa izango duen arren, mezu nagusia udaberriaren etorrera izango du

ARRASATE

GAU-ESKOLAK

Gau-eskolak emateko deialdia egin du Arrasate-Aretxabaleta Institutuak

Eskariak jasoz gero, Hezkuntza Ordezkaritzak erabakiko du eman edo ez

UBANE MADERA

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak gau-eskolak emateko aukera aztertzen dihardu. Horretarako, eskaera orriak atera dituzte interesa dutenek betetzeko, eta horren arabera, Hezkuntza Ordezkaritzak erabakiko du eskola horiek eman edo ez.

Gaur egun, gau-eskolak hartzeko bailaratik kanpo joan beharra dago. Eta gertuen, Eibarren ematen dituzte gau-eskolak.

Debagoiengan eskaera handia dago, eta Arrasate-Aretxabaleta Institutuak zerbitzu hori jartzeko aukera dagoela ikusi, eta arestian aipatutako egitasmoa jarri du abian. Dagoeneko jaso dituzte zenbait eskaera. Gehienak gaztetan ikasteari utzi dioten pertsonak dira.

Gau-eskolak jaso ahal izateko adin mugarik ez dago, bai, ordea, bete beharreko baldintza batzuk: DBH, lehengo BBB 1 eta 2 edo lehengo IEE mailetako ikasketak bukatuta izatea beharrezkoa da.

LAU IKASKETA

Egitasmoa abian jarriz gero, eskolak arratsaldetan emango dira,



Arrasate Institutuan emango dira eskolak.

UBANE MADERA

18:00etatik 21:00etara. Eta batxilergoa hiru urtean egiteko aukera izango da. Lau ikasketa mota egongo dira aukeran: Natura eta Osasun Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak, Ikasketa Teknologikoak eta Artistikoak.

Apirilaren 20an bukatuko da eskaerak jasotzeko epea. Beraz,

oraindik hilebete geratzen da. Orduan izango dituzte datu zehatzak esku artean, eta Hezkuntza Ordezkaritzara bidaliko dituzte.

Edozelan ere, institutuko zuzendari Ramon Osinagaren ustetan, datorren ikasturtean gaueko batxilergoa abian izango da.

ARAMAIO


ARETXABAETA

ZINEKLUBA

Juan Luis Nafarrate aramaiarra, logotipo lehiaketaren irabazlea

AINZANE IRIZAR

Aramaioko Argindar Banatzailea enpresak badu logotipoa. Juan Luis Nafarrate da egilea, aramaiarra. Lehiaketara aurkeztutako zortzi lanen artean, Juan Luisek atera du lehenengo saria. Hortaz, argindar banatzailearen izenarekin egindako dorrearen marrazkiak irabazi du. Horixe zen helburuetariko bat: logotipoak enpresaren argindar banatzaile izaerarekin lotura izatea. Udaleko ordezkariak ere pozik daude emaitzarekin.



ARAMAIOKO

ARGINDAR BANATZAILEA, S.A.

Gazte talde baten ekimenez, abian da eguenetako zinekluba

Datorren egunean, 'Blade Runner' filma ikusteko aukera izango da


AMAGOIA LASAGABASTER

Atzo eman zuten Aretxabaletako zineklubean lehenengo filma. *El Odio* pelikula frantsesa izan zuten ikusgai kultura etxeko bideogelara joan zirenek. Hemendik aurrera ere, eguenero, 22:30etan, era horretako pelikula bat emango dute.

Zine Kluba herriko gazte talde baten ekimenez sortu da. Herrian ez dago zinema aretorik, eta alternatiba moduan proiektu polita izan daitekeela uste dute. Hala ere, beraien asmoa, ez da filmak ikusteko aretoa eskaintzea soilik. Pelikula bakoitzeko informazio guztia ikuslearen esku jarriko dute.

Hasieran udaletxe zaharrearrean ematekoak ziren pelikulak. Udaletxeak, berriz, Kultura Etxeko gela bat utzi die. Filmak bideo proiektorez emango dituzte.

Ohikoa denez, ez dute pelikula komertzialik eskainiko. Horretaz gain, antzinako filmak ere lortuko dituzte. Datorren egunean *Blade Runner* izango da ikusgai.



Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Gizonak Emakumeak

Jantziak

Ibai-arteren bazkide

COMERCIAL BRUNET

Musqvarna BOSQUE & JARDIN

Robin

Ozaeta, 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

Zabalik

URDIN
ELORTZATontokeixen
artxiboa

Irudiaren gizartean bizi gara. Ba ote du inork horren zalantzarik? Baina guk nola irentsi dezakegu horrenbeste irudi? Ez dakit zelan garen gauza horrelako irudi bonbardeoak gordetzeko.

Erdi Aroko gizaki batek bere bizitza osoan -30 edo 45 urte inguru, hori be aitortu behar da- jasotzen zuen informazio kopuru bera jasoko duzu zuk egun bakarrean, goizean irratia entzun, kafe orduan egunkariak gaineratik begiratu, bazkalostean tele-albisteak ikusi, arratsaldean interneten nabigatu eta gauean pelikulatxo baten aurrean loak hartzen zaituen bitartean. Biderkatu 365 aldiz, eta gero eragiketa bera egin zure adinarekin. Zenbat megatoko informazioa izango da hori? Auskalo.


Cruzcampo zerbezaren iragarkian ikusten den moduan irudikatzen dut gure burubarrua, Woody Allen-i kopiatutako eszena horretan murgildu eta langile nekazenez beteriko kontrol gela nagusiko "Irudi Artxiboa"n barneratzen naiz. Milioika karpeta ageri dira bere aurrean: eskua luzatu eta bat hartuko dut, azalean "T" hizkia daukana. Ireki, eta guztien gaineratik "Tontokeixak" jartzen duen azpikarpeta piztu dit ikusmina. Gainerakoak baino askoz lodiagoa da. Zabaldudanean, berehala agertu da artxibo erruduna. "Telebista" irakur daiteke eta irudiz gainezka dago, lehertu beharrean. Eskuetan hartu ahalaz bat, erdiak lurrera erori eta aspaldiko Pepe Navarro eta Tom Hanks graziosoarenak egiten hasi dira; buelta eman eta "Un, dos, tres"eko azafatak Tamararekin batera dantzan; bestaldera begiratu eta Lewinsky andereñoa Lequiu jaunaren eskutik paseatzen; aurrerago, "Gran Hermano"ko kakaumeak "Goenkale"ko Hortentsiarekin kantuan. Puuuuff! Hau infernua!

Telebistaren artxibo guztia jaso eta memoriaren zakarrontzira bota dut. Ez dakit, baina gaur azkarrago eta garbiago sentitzen naiz.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Debagoieneko
biztanleei

Debagoieneko Mankomunitateko enpresa komiteak publikoki salatu nahi du politikoen gehiengoak hondakin solidoen bilketa zerbitzua subkontratatzeko duen interesa.

Jakin arren ez digutela erantzungo, subkontratatzeko dituzten arrazoi edo argudioak zeintzuk diren galdetuko diegu, eta ezkutuko interesak badituzte, herritarren aurrean azal ditzatela.

Debagoieneko herritarrei jakinarazi nahi diegu, zerbitzua pribatizatzen badute, kostuak handiagoak izango direla, eta herritarrok zerga gehiago ordaindu beharko ditugula zerbitzu beragatik.

Amaitzeko, esan nahi dugu zerbitzu enpresa hauek, partidu politikoen faboritismo edo kutunkerietarako eta, kasu larrietan, sarritan gertatzen den moduan, ondasun eta diru publikoetan eskua sartzeko erabiltzen dituztela.

DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEKO
ENPRESA KOMITEA
LAB, CCOO ETA ELA
Arrasate

Emakumearen eguna
dela eta

Dagoeneko, pasatxo dugu emakumearen egun ditxosozkoa, eta nik, emakume izanagatik, ez dut utzi nahi adierazi gabe emakume izatearen gaineratik pertsona naizela, eta pertsona naizen heinean, epai nazatela aldarrikatzen dudala.

Entzun behar izan dudanarengatik, badirudielako emakumeak beste animalia espezie bat eratzen dugula. Bestela, zertara dator hainbeste eztabaidatze demagogiko gizonetako egiten dutena burutzeko gaitasunak direla eta? Ezin dezaket onartu, inolaz ere, gure mugapen biologikoen hainbeste hitz jario hutsal eragiteko adina eman dezaketunik.

Jaunak, has zaitezte oraintxe bertan buruan sartzen ez gaudela ezta zuen ezta inoren obra soziala izateko prest, eta ez dugula etsitzeko inongo asmorik. Har gaitzazue zuen adiskidetzat eta ez lehiakidetzat. Arren eskatzen dizuet, egunak joan eta egunak etorri mamu honen aurka burrukan dihardugunon izenean.

INES CASTIELLA

Presoen eskubideak
milaka kilometrora

2001. urtean sartuak gara eta aldaketa zaurerakoia ekarriko dituen mendea izango dela diote.

Helduko al dira, behingoan, Euskal Herriko gehiengoaren hitza eta euskal presoen eskubideak beteko dituen aldaketa aurrerakoirik?

Tamalez, oraindik, ez da egun hori iritsi, eta egoerak berdin jarraitzen du. Presoen eskubideek milaka kilometrora jarraitzen dute, horrek dakarren guztiarekin: astero egin beharreko kilometroak, istripuak... eta hori guztia berrogei minutuko bisita baten truke. Non daude horrenbeste aldarrikatzen ditugun eskubide horiek? Ezin aipatu gabe utzi, espetxean dauden bizi baldintzak ere: tortura, isolamendua, mehatxuak, jipoiak... Hori da beraiek eskaintzen diguten irtenbide demokratikoa. Presoek

urteak daramatzate borrokan, dagozkien eskubideak errespetatuak izan daitezten, eta bi estatu zapaltzaileen jarrera ikusirik, gogoeta eta urrats berriak egiteko garaia dela uste dugu. Euskal gizarteak argi utzi du bere iritzia zein den, presoen eskubideak errespetatuak izan behar direla, alegia. Hala eta guztiz ere, era guztietako protestak eta deklarazioak burutu badira ere, gure hitza ez da errespetatu izan. Hitza omen da, herriarena batik bat, sakratua eta guztiz errespetagarria; ezarria urruturik gabiltz, ordea, aspaldian.

Kalera atera behar gara eta Espainia zein Frantziako gobernuen inobilismo eta politika errepresiboari aurre egin behar diogu. Parisen nahiz Madrilen entzun dezatela, belarri duinik badute, mutu geldituko ez den herri honen hitza.

EUSKAL HERRITARROK
Arrasate

Sanzen anaiak

Gezurra badirudi ere, Nafarroatik atera eta Deba arrora heldu dira Sanzen anaiak. Deba arroko zenbait bide seinale erasotu dituzte. Hala, euskaraz ondo zudenak erdipurdi utziz, eta beste batzuei erdarazko grafia aplikatu diete.

Bistan da, hasieran Nafarroan hasi zena hedatuz doala. Honen aurrean, denok dugu zer esana eta egina.

Aretxabaletako EHEk besterik gabe eraso hauek salatu nahi ditu. Horrelakorik gerta ez dadin ofizialtasuna da bidea eta honen alde lan egiten jarraituko dugu, euskaldunon eskubideak defendatuz. Gaur, tamalez, gure herrikoak izan dira eraso jaso dutenak, baina bihar ondokoa izan daitekeenez, denok egin behar diogu aurre. Bukatzeko, beti esaten dugun moduan: Euskarari erasorik ez!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Aretxabaleta

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROLABE



Eztabaida

Datorren astean, domekatik astelehenera arteko goizaldean, Oscar sariak banatuko dituzte, zinemako saririk ospetsuenak eta garrantzitsuenak. Betiko moduan, aurten ere sekulako ikus-

mina sorrarazi du sariketa horrek. Ezin da ukatu zinemagintza oso indartsu dagoela azkenaldian, ikusi besterik ez dago han eta hemen zabal-tzen diharduten multi-zinema berriak eta areto horietara hurbiltzen den jen-

detza. Bideoaren agerpenak zinema desagerraraziko zuela uste zuten askok. Oker zebiltzan. Baina, Oscar saria irabazi izanak kalitate bermea ematen dio pelikula bati? Horixe da oraingo astean eztabaidagai duguna.

Oscarretan saritutako filmak kalitatezkoak dira?

Gutxitan gertatzen den miraria



JOSU ATXAGA
Aretxabaletako zine-klubekoa

Noizean behin, milagroren bat edo beste gertatu ohi da, baina!... Argi dago ikusten eta irakurtzen duguna beti eskura ematen digutena dela.

Horrelaxe sortzen dira iritziak, aurretiko programazio bati segida emanez. Ondo saltzen jakitea deritzot horri.

Horixe bera gertatzen da datozkigun Oscar sariekin; azken finean, politika diruzale baten erakusleho dugu, mundu osoko film merkatua kontrolatzen duena, pentsaera eta bizi estereotipo batzuk sortuz.

Komertzialismoan, aktore eta aktorea salerosketan eta gutxi batzuen interesean oinarrituriko politikarekin, nola demontre berma daiteke Oscar sarietan filmeen kalitatea?

Adibidez, "American beauty" filmak, hasiera batean, gizarte amerikarrari eginiko kritika gogorra dirudi, baina azken finean, "diskulpa" soil bat dela argi dago.

Film horrek bere komertzialtasuna, kritika eta metafora faltsu eta pobreekin gorde nahi izan du, eta baita lortu ere.

Barre algarak ere lortu dituzte Oscarrek, baina nori edo zeri egiten diogu barre? Bestalde, zine jaialdi edo sariketetan aurreikusita egon dira irabazleak, Almodovarri begiratu besterik ez dago.

Zine ona non aurkitzen da?

Filmak egiten eta saritzen jarrai dezatela



JABIER ETXAGIBEL
Vitoriana de espectaculos-eko gerentea

Oscarrak banatzeak Estatu Batuetako industria zinematografikoa jantzi luzez janztea dakar. Teknika zinematografikoa Europan asmatu zuten, baina teknika horren garapena, ikuskizunari eta entretenimenduari begira, Estatu Batuetan egin da bete-betean.

Horrelako produktu bat gizakien psikologian, ametsetan, frustrazioetan, oinarritzen da, azken baten, ilusioan. Mitoak eta glamourra ezinbestekoak dira pareta bati argiaz gain beste zer edo zer eransteke, amets bat, alegia.

Nire ustez, testuinguru honetan ulertu behar da Akademiaren parafernalia guztia Oscarrak banatzerako orduan. Oscarretarako hautatzen dituzten eta saritzen dituzten filmen kalitate artistikoa ezin da ukatu. Baina hori bai, ez da munduan egiten den kalitatezko zinema bakarra. Hobe esan, EEBBetako zinemaren orbitapean dagoen zinemari saria da. Edozelan ere, nahiz eta zinema mota horrek kritika ugari jaso, nire ustez, planeta osoan egiten den zinemaren oinarri eta sostengua da. Film horiek barik, zinematik ezin izango lukete aurrera egin, eta hortaz, ezin izango litzateke gure zinema aurkeztu. Filmak egiten jarrai dezatela.

Saritua berdin kalitatea

Amerikarrek asko maite dute aspektakulua, eta maisuak dira, gainera, edozein arte motari glamourra eranstean. Zinean ere berdin. Bestalde, zinea, batez ere, entretenitzeko, ondo pasatzeko, dela argi dute. Hortik, Hollywooden sortzen diren pelikulak.

Zinea egiteko eta ulertzeko amerikarrek duten moduari egokitu-tako sariak baino ez dira Oscarrak.

Kalitatearen bermea duten? Badira Oscarra irabazi duten pelikula edo aktore txarrak.

Baina, gehienetan onak direla esango nuke. Beste kontu bat da saritutako horiek bezain onak edo onagoak diren beste batzuk sari barik geratu direla, edo Oscar saria irabazteko, kalitatea ez ezik, estereotipo batzuk betetzea beharrezkoa izatea.

Oscar sariak, beste edozein

motatako sariketa bezala, marketinga baino ez dira. Horixe baita helburu nagusia, kasu honetan, Hollywoodeko industria bultzatu, sustatu edo indartzea. Euren produktuak mundu osoan saltzen badakite, behintzat. Egun hauetan, munduko bazter guztietan hara begira egongo gara.

M. ALTUBE
Oñati

Gora eta Behera

'GRAN HERMANO'REN ITZULERA



Hauteskundeen zirkoa hastear dagoenean, futbolaren zirkoa gustuko ez dugunok *Gran Hermano*ren zirkoa jarraitzeko aukera dugu berriz ere. Bide batez, posible al da politika praktika ez dezaten politikariren bat edo beste nominatzea?

MAREA BELTZA BRASILEN



Udaberria urtero etortzen den bezala saiatzen gara gu behin eta berriz bizilekutat daukagun lurra hondatzen. Ez da marea beltz honek izango dituen ondorioengatik (ez da bereziki larria), lurrekiko dugun jokaeragatik baizik. Dena dela, bihar ere lanera kotxean bakarrik joango naiz.



JULEN ALBERDI
Bergarako Orfeoiko presidentea

Koplak

Bitoriano Gandiaga

Doinua: Oihaneko pagoak blai

Elorrixan negarretik kantu tristia bi txorik, poeta batek agur esan dau Arantzazuko gainetik.

Haizia apurtu in zan ilunkarian begixan, zenbat sekretu gordeten dian sotana baten azpixon.

Goroldixo bustixetan txingurritxuak berbetan, berriz jaioxoko da Gandiaga udabarri guztietan.

Ostrua paguan bizar ilundutakuan izar, zerbait barrixa zabaldu eben bere patillatan zihar.

Haiziak urari patxo ta uholdean enpatxo, Bitoriano zeuretzat dia pagopeko bost koplaxo.

ANDER LIZARRALDE

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zure gustukoa da Realeko lehendakari berria?

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK
Edu Mendibil (Kirola),
Non Zer), Aintzane Irizar
(Berri-Zakua),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantazu Lagunilla, Nerea
Zallo, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Aitziber Langaran
MAKETAZIOA
Goio Arana, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

Pablo Ibar izen-abizenak jada ez dira arrotzak inorendako, baina izen hori entzutean, nolabaiteko estutasuna nabari dugu. Pilare Pereda arrasatearra da, eta Pablo-ren lehengusina izateaz gain, Ibar familiaren bozeramailea ere bada. Pablo-ren lehengusinak heriotzaren korridora hurbiltzeko aukera eskaini digu, baina irakurleok lasai gaude, hurbildu besterik ez gara egingo eta. Pablo, ordea, barruan da, heriotz zigorra du, non eta askatasunaren lurraldean.

VABIER URZELAI

Zelan bizi izan dituzue azken hilabeteak?

Bueno, Gabonetatik hona gauzak asko okertu dira, eta Gabonetan gure osaba Euskal Herrira etorri zen laguntza bila. Familiak bazekien Pablok sei urte zeramatzala kartzelan, baina isilean eraman dute. Hala ere, azkenaldian gauzak asko okertu dira, eta tamalgarrria bada ere, Estatu Batuetan lagundu, diruarekin soilik laguntzen dute.

Esan ohi da diruak ez duela guztia konpontzen, baina kasu honetan...

Bai, kasu honetan lagundu, behintzat, egiten du.

Ezagutzen duzu Pablo?

Behin ikusi nuen, oso txikia zenean, eta lau urte besterik ez zituen Euskal Herrira etorri zenean. Orditik hona ez dut ikusi, baina beti izan dugu hango familiaren berri Pabloren aitaren bitartez.

Kontaiguzu zergatik dagoen Pablo heriotzaren korridorean.

Bere aitak kontatu digunez, Pablo ez da batere berezia, hau da, bere adineko edozein gaztek dituen ametsak ditu, eta horrez gain, kirola asko atsegin du. Arrazoi horregatik zegoen aitarekin Atlantian. Zesta puntan egiteko asmoa zuen, eta bi hilabete geratzen zitzaizkion profesionalentzat sartzeko. Zoritxarrez, entrenamendu baten edo, pilota batekin begian jo eta zauritu egin zen. Horrela ezin zuen kirola egin, eta aldi baterako baja hartu zuen. Baja aprobetxatuz, Floridara joteko erabakia hartu zuen, amarengana, eta han okertu ziren gauza guztiak.

Floridan txikitako lagunekin elkartu zen, eta kalean zebiltzala, istiluren bat izan zuten, eta polizia Pablo atxilotu zuen.

Atxilotu eta gero, polizia hiru aste lehenago izandako hilketa bat leporatu zion, eta ordutik hona espetxeratua dago.

Dirudenez, froga bakarria kamera batekin hartutako argazki bat da.

Bai, eta gainera, zuek ikusi duzuen argazki hori moldatua dago nolabait. Hala ere, nire ustez, argazkikoak ez dauka Pabloren antzik, bueno, ez dauka inoren antzik, ez delako ezer ikusten. Argazkia froga moduan erabili zutenean ilunagoa zen, hortaz, atera kontuak. Estatu Batuetan norbaitek izan behar du errudun, eta oraingoan, Pablori egokitu zaio.

Heriotzaren korridorean zelakoa da bizitza?

Pablok hiru hilabete daramatza korridorean, nahiko egoera txarrean. Zazpi metro koadroko gela baten dago, eta astean bi orduz iriñten du kanpora: ordu bat martitzenetan eta beste ordu bat eguaztenetan. Astean hiru-



Pilare Pereda

PABLO IBARREN LEHENGUSINA ETA IBAR FAMILIAREN BOZERAMAILEA

“Estatu Batuetan norbaitek izan behar du errudun, eta oraingoan, Pablori egokitu zaio”

EPAIKETA

“Abokatu batekin berba egin dugu, eta kasua hartuko lukeela esan digu, baina, guztira, 180 milioi inguru behar ditugu”

HERIOTZ-ZIGORRA

“Heriotz-zigorraren ondoren egiten diren ikerketen arabera, hildakoen %14 errugabeak izaten dira”

tan dutxatzen dira, baina bost minutu besterik ez dute komunitaraino joan eta dutxatzeko. Horiek dira euren ziegetatik irteteko dituzten aukera guztiak, eta zuri-beltzeko telebista bat daukate lagun, orduak laburragoak izan daitezten.

Kanpokoekin badaukate harremanik?

Bai, domekero bisitak jasotzeko eskubidea dute, eta gurasoak edo emaztea domekero joaten dira Pablo ikustera. Horrez gain, eskutitzak jaso ditzakete, eta hori oso lagungarria izaten da, lau horma artean

orduak luzeak izaten dira eta. Horregatik, jende guztia eskutitzen bat idaztera animatu gura dut, hantxe daudenak izugarri eskertzen dute, eta horrez gain, Pablok gaztelania hobetzeko aukera izango du.

Korridorean, orduak luzeak izateaz gain, denbora luzez egoten dira.

Bai, Floridako presondegi federalean dago espetxeratua Pablo, eta heriotz-zigorra dutenek jeneralean urte asko igarotzen dituzte heriotzaren korridorean. Batez beste, hamaika urte inguru egoten dira heriotzaren egunaren zain, eta denbora

horretan ematen dizkieten janari eta pilulek ez diete batere onik egiten.

Behin korridorean egonda, aukerarik badago handik irteteko?

Zaila da, baina posible da. Horretarako, abokatu berezia behar da, apelazioetan aditua; eta era berean, abokatu ona izan behar da. Abokatu batekin berba egin dugu, eta kasua hartuko lukeela esan digu, baina 60 milioi eskatu dizkigu. Diru hori apelazioa aurkezteko bakarrik da, eta guztia ondo joango balitz, bi urteko iraupena izango luke. Gero, epaiketa hasiko litzateke, eta epaiketak nahiko lasterrak izaten badira ere, beste 120 milioi beharko genituzke. Epaiketa horietan zortzi abokatu izaten dira, eta abokatuok hainbat arlotan dira aditu: ADNan, argazkietan... Horrez gain, epaiketaren gela ere alokatu egin behar izaten da, eta guztia gure kontu. Guztira, 180 milioi inguru behar ditugu.

Ezagutzen duzu Pabloren auziaren antzekorik?

Bai, beste mutil bat ezagutzen dut. Joakin Jose Martinez deitzen da eta espainiarra da. Azaroan irten zen korredoretik, baina familiakoei dirua falta zaie eta epaiketa behin eta berriro atzeratu egin behar izan dute.

Hortaz, Estatu Batuetan askatasuna erosi egin behar da.

Bai, baina ez da hori bakarrik. Aske uzten bazaituzte, ezer egin ez duzulako da. Hortaz, zer gertatzen da espetxean igarotako urte guztiakin? Zer gertatzen da aske uzteko behar izan den diru guztiarekin? Eta errugabea dena, baina hori frogatzeko dirurik ez duenak? Heriotza?

Estatu Batuetako presidente berriak ez ditu gauzak aldatuko?

Ez, presidentea heriotz-zigorrarekin ados dago, eta epaimahaia ere neurri horrekin ados egon behar du; hortaz, heriotz-zigorra luzerako izango dugu. Gainera, heriotz-zigorraren ondoren eginiko ikerketen arabera, zigortuen %14 errugabea izan ohi da.

Ikerketak, hortaz, hil eta gero

Bai, eta orduan ez dago konponbiderik.

Gabonetan entzun genuen ahaleginetan ari zinetela Pablok Espainiako nazionalitatea lortzeko. Zergatik?

Espainiako nazionalitatea lortzeak asko laguntzen du. Alde batetik, Espainiako senadorean laguntza izaten da, eta azken baten, presioa egiteko beste bide bat da. Beste nazionalitate bat izatean, norbait zarela uste dute, hau da, aintzat hartzen zaituzte, eta espetxean ere polizia errespetu handiagoz jokatzeko dute, azken baten, edozer gauza egiteko kontu handiagoa izaten dute.

Zerbait egiterik badaukagu?

Laguntza era askotakoak izan daitezke. Norbaitek ideia berriren bat izango balu, gurekin harremanetan jar daiteke, eta horrez gain, ekonomikoki laguntzea nahi duenak Kutxan eta Euskadiko Kutxan kontu korranteak ditugu Pabloren izenean. Lehen ere aipatu dugu Pablori idazte soilarekin asko laguntzen dutela, eta hori ere asko eskertzen dugu.

Pablo Ibarri laguntza eskaintzeko:

Gipuzkoako Kutxa:

2101-0174-17-0123292088

Euskadiko Kutxa:

3035-0148-19-148102210.3

BBVA: 0182-7545-16-0295005002

Eskutitzak idazteko:

Pablo Ibar

DC #L 31274 Cell G - 1102

Florida State Prison

P.O. BOX 181 Starke, FL. 32091 USA

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 943 00 85 76

Elgetako lau t'erdiko txapelketa

Joan den egubakoitzetik, 278 pilotari lehia kadete eta 23 urtetik azpiko kategorietan

Joan den egubakoitzean hasi zuten Elgetako Ozkarbi elkarteak antolatutako lau t'erdiko pilota txapelketa. Aurtengoa Elgetako txapelketaren XXVI. ekitaldia izango da, eta guztira, 278 pilotari izango dira lehia, 179 pilotari 23 urtetik azpiko kategorian, eta 99 kadete mailan (1985ean eta 86an jaiotakoak). Txapelketa, ohikoa denez, kanporaketa sistema jarraituz jokatu dute eta finalak ekainaren 29an edo uztailaren 1ean jokatu dituzte. Afizionatuen finala ETBk zuzenean eskainiko du.


Hemendik ekainera bitartean Elgetan, astero, partiduak jokatu dituzte, egubakoitzetan (21:30ean), zapatuetan (16:30ean) eta domeketan (11:00etan). Datzen asteotan Aretxabaletako pilotalekuan ere Elgetako txapelketako kanporaketak jokatu dituzte, zapatuetan, 16:30ean, eta domekan, martxoak 25, Oñatin ere kanporaketak izango dira, 11:00etan.

Partaidetzari dagokionez, 23 urtetik azpiko kategorian Gipuzkoako pilotariak izango dira nagusi (75, denera), bizkaitarrak 59 izango dira, nafarrak 38 eta arabarrak zazpi. Afizionatuen mailan Debagoieneko pilota elkarteetako 16 pilotari arituko dira txapelaren bila.

Kadetetan, berriz, 40 gaztetxo gipuzkoarrak dira, bizkaitarrak beste 33, nafarrak 21, arabarrak lau eta Errioxako pilotari bakarra. Kadeteen artean, Debagoieneko zortzi pilotari izango dira lehia.

TXAPELDUN EZAGUNAK

Elgetako lau t'erdiko txapelketak izen handia izatea lortu du. Juan Luis Ubera Ozkarbiko kideak azpimarratu duenez, "Elgetan txapelkun izan diren hainbat pilo-



Castellanos izan zen joan den urteko irabazlea 23 urtetik azpiko kategorian.

tari profesionaletan ere goi mailara iritsi dira. Hor daude Eugi, Beloki edo Nagoreren kasuak, besteak beste. Bestalde, antolaketa ere ona dela uste dut, urte-tik urtera hobetzen saiatzen gara, eta hori ere txapelketaren arrakastaren sekretuetako bat dela esango nuke".

Esan bezala, Elgetako txapelketak bere sorreraren zilarrezko ezteiak bete zituen iaz. Lau t'erdiko espezialitatea erdi ahaztuta zegoen Elgetako txapelketa abian jarri zutenean, eta ordutik ona, profesionaletan ere, bultzada handia eman diote lau t'erdiko modalitateari.

EDU MENDIBIL

Azken txapeldunak

Urtea	23 urtetik beherakoak	Urtea	Kadeteak
1989	Eugi	1989	Beloki
1990	Eugi	1990	Imaz
1991	Beloki	1991	Imaz
1992	Nagore	1992	Berraondo
1993	Nagore	1993	Muruamendiaraz
1994	Ortiz	1994	Garcia
1995	Olaizola I.a	1995	Olaizola II.a
1996	Berraondo	1996	Ruiz
1997	Galarza	1997	Etxaniz
1998	Muruamendiaraz	1998	Mendiluze
1999	Leitza	1999	Mendizabal
2000	Castellanos	2000	Gartziandia

Kirolabur

DUATLOIA/OÑATI

Zapatuan, martxoak 24, Oñati-ko duatloia X. ekitaldian jokatu dute, 16:00etan. Partidua, lehenbizi, zazpi kilometro korrika egin beharko dute Oñatin, herri barruan, eta jarraituz Udanari buelta emango diote bizkaitan, 40 kilometro hain zuzen. Bukatzeko, korrika beste 3,5 kilometro egin beharko dute. Oñati-ko Triatloi Taldeak antolatuko du proba eta 225 bat partaide izateko espero dute.

TXIRRINDULARITZA/GORLAKO

Alberto Contador Iberdrola taldeko txirrindulari madrildarra (18 urte) irabazi zuen domekan jokatuak Gorlako igoera. Gainera, 20 minutu eta 30 segundoko denborarekin, errekor berria lortu zuen. Beteranoen proban Ivan Santurde iazko irabazlea nagusitu zen. Kantabriarrek 23 minutu eta 35 segundoko denbora egin zuen.

FUTBOLA/BERGARA

Bergara hirugarren mailako futbol taldeak UPV-EHU taldearen aurka jokatu du zapatuan, martxoak 24, Agorrosin, 16:30ean. Juanina Garaik entrenatzen duen taldea sasoi txarrean dago, mahoneroek azken bos partiduak galdu dituztelako. Jaiotsiera postuetatik gertu daude bergararrak, sailkapeneko 15. tokian, 32 punturekin. Liga amaizteko zortzi jardunaldi besterik ez dira falta.

ZIKLISMOA/UZARRAGA

Domekan, martxoak 25, gazte mailako Uzarraga igoera jokatu dute Antzuolan, 10:00etan hasita. Aurtengoa XXVI. igoera izango da, Peña Aiatzaren antolatuta. Txirrindulariek 70 kilometroko ibilbidea bete beharko dute: Antzuola-Bergara-Antzuola-Oñati-Antzuola-Oñati-Uzarraga. Antolatzaileen arabera, 130 partaide (17 eta 18 urtekoak) inguru izango dira domekako proban. Lasterketak 11:45 aldera bukatuko da. Debagoieneko taldeei dagokionez, Bergarako Lokatza Sumofic, Arrasateko Dorleta Fagor eta Oñatiko Aloña-Mendi Ulma taldeetako txirrindulariak izango dira irteerak.

AUKEA SARIK/ARRASATE

Martitzenean, Tau Baskoniarren eta Cafes Aitona Askatzen taldeek Arrasaten jokatu zuten partiduen atsedenaldian Aukea kirol sariak banatu zituzten. Arrasateko saskibaloitza Ander Landaluze motorzalea eta Arrasate Kirol Proiektua saritzen dituzte aurten. Arrasate Kirol Proiektuak bere sorreraren 10. urteurrena ospatzen dihardu egunotan, eta martitzeneko saskibaloitza partidua antolatutako ekitaldietako bat izan genuen.

Reala-Osasuna Atxabalpen

Arrasate Kirol Proiektuaren 10. urteurrena ospatzeko Realaren eta Osasunaren arteko partidua izan zen eguaztenean Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian. Gaztetxo eta futbolzale ugari bildu ziren hantxe. Osasuna aurreratu zen markagailuan Riveiroren golari esker, Asperren hutsa aprobetxatuz, eta Alberto Alejandrok sartu zuen berdinketaren gola, Llorenteren jokaldi bati amaiera ematean. Partidua nahiko kaskarra izan zen arren, besteak beste, Collet eta Peiremans gertutik ikusteko aukera izan zuten zaleek.



Podiuma

Alatz Larrañaga | TXIRRINDULARI FEDERATUA |

Alatz Larrañaga bergararra (30 urte) futbolean ibilitakoa da Aloña Mendi eta Bergara futbol taldeetan, preferente mailan. Hala ere, 24 urterekin futbola utzi zuenetik hainbat kirol praktikatu izan ditu. Azken bi urteotan txirrindulari lizentzia aterata eta beteranoen lasterketetan parte hartu du. Domekan, Gorlan, bigarrena izan zen.

Nolatan futbolari ohi bat tropelean?

Futbola laga nuenetik, tenisean, frontenisean edo squashean ibili naiz. Futbola ez da kirol bakarra, eta gainera, gustatzen ez zaizkidan gauzak ikusten dira, esate baterako, jokalaria bat, gazte mailan, denboraldi osoan aukian egotea. Ziklismoa *hobbie* bat da niretzat, eta azken bi denboraldietan Espainiako Federazioko lizentzia ateratu dut, ziklismoaz disfrutatzearen eta esperientzia berriak ezagutzearen. Beteranoen probetan parte hartzen ari naiz, baina talderik gabe.

Domekan, Gorlan, irabaztea espero zenuen?

Joan den urtean, uste baino hobeto ibili nintzen, eta aurten, 4.000 kilometro baino gehiagoarekin heletzea nahi nuen. Hala ere, 3.400 kilometro inguru egin ditut Gorlako proba baino lehen, abendutik hona. Lasterketa ona egitea espero nuen, baina irabaztea ez, Ivan Santurdereraren irabaztearen zegoelako eta joan den urtean oso erraz irabazi zuelako. Hala ere, lasterketa nola joan zen ikusita, ez nago pozik.



Alatz Larrañaga 2.a izan zen domekan Gorlako igoeran. EDU MENDIBIL

“Disfrutatzearen eta esperientzia berriak ezagutzearen ari naiz ziklismoan. Bizikletan ibiltzea gozamina da niretzat”

“Domekan, Gorlan, ez nuen ausardiarik izan Santurderen erasoari erantzuna emateko. Borrokarik gabeko karrera izan zen”

Zergatik?

Ez nuelako ausardiarik izan Santurderen erasoari erantzuna emateko, eta ia lasterketa guztia bakarrik egin behar izan nuelako. Santurdek berehala jo zuen eraso, lasterketaren hasieran. Nirekin beste norbait zatorrela pentsatu nuen, baina atzera begiratzerakoan, bakarrik nengoela ohartu nintzen. Eta laster-

keta osoa bakarrik egiteak ez dauka eragingaririk. Taldetxoren batekin, ondo koaren arnasa entzutén duzula, gehiago disfrutatzen duzu errepidean. Baina borrokarik gabeko lasterketa izan zen. Santurde 50 bat metro aurretik izan nuen ia igoera osoan; eta banekien ez nuela harapatuko. Hasierako erasoari erantzun izan banio, aus-

kalo zer gertatuko zen. Santurdek berak ere, helmugan, eraso jotzerakoan indarrez nahiko justu zebilela eta arriskatu egin zuela aitortu zidan. Oraindik ere lasterketari bueltak ematen ari naiz.

Datorren urtean baliteke beteranoen probarik ez izatea Gorlan.

Normala. Antolatzaileek afizionatuen ibilbidea luzatzeko asmoa daukate eta beteranoen proba kolokan dago. Gorlara datozen gehienak irabaztera datoz eta askok eta askok irabazteko gutxi eta galtzeko asko daukate. Aurtengo partaidetza eskasa ikusita, ez da harrizkoa beteranoen proba desagertzea. Hala ere, pena litzateke.

Zein asmo duzu aurtengo denboraldirako?

Ia astebukaerero izaten dira lasterketak, Nafarroan gehienbat, eta ahalik eta ondoen ibiltzea, eta Ricardo Iturbe (Goerna taldean ari da bera) eta horrelako jendearen eskutik ikastea da nire asmoa, esperientzia berriak ezagutzea.

Konpetitza ala entrenatzea nahiago?

Onena, konpetitzeko entrenatzea. Dena dela, bizikletan ibiltzea gozamina da niretzat.

Arriskua ere hor dago.

Olanok esaten duen moduan, arriskua izatera ohituta gaude, baina ez litzateke horrela izan behar. San Prudentzioko tartea, esate baterako, lotsagarria da. Gero eta auto gehiago dago eta guztiok errepide berean ibili beharra daukagu. Txirrindulariok ez daukagu inolako babesik eta lotsagarria da hainbat gidariren portaera.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Aintzane Arizmendi

Igerileria



Arizmendik bi aldiz parte hartu zuen Espainiako txapelketan.

Gipuzkoako hainbat marka hautsi zituen.

Getaria-Zarautz hiru aldiz irabazi zuen.


18 urterekin utzi zion konpetitza.

Bergara Igeri Elkarteak eman duen igerilari-rik onenetakoa dugu Aintzane Arizmendi. Bergaran igerilekuak zabaldu bezain laster, 1970eko hamarkadaren hasieran, Igeri Elkarteak sortu zen eta talde bergararrak emaitza aipagarriak lortu zituen berehala. Aintzane 10 urte zituela hasi zen igerian. Hasiera hartan, hainbat adinetako 40 bat lagun arituko ziren Igeri Elkarteak; “poztasun pilo bat eman dit igeriketak, baina oso sakrifkatua zen, konpetizio garaian asko entrenatzen ginelako. Egutero zazpi bat kilometro egiten genituen”. Ezaugarri bikainak zituen Aintzane gaztetan. Gipuzkoako hainbat marka hautsi zituen, eta batez ere, iraupeneko probetan ibili zen ondoen. 200 eta 400 metro estilo probak zituen gustukoak eta 400 eta 800 libreetan ere primeran zebilen. Aintzane gogoratzen duenez, “Donostia, Tolosa eta Ordiziako taldeekin lehiakortasun handia zegoen, eta orduan, Gipuzkoan, Bergarako taldea punta-puntan zegoen, neurri handi baten, Jesus Jauregi entrenatzaileari esker”. Gipuzkoako txapelketan onenen artean izaten zen Aintzane, baina handik gora, orduko Euskal-Nafar txapelketan esaterako, zailagoa zen nabarmentzea. Espainiako txapelketan bi aldiz parte hartu zuen.

Bestalde, Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia hiru aldiz irabazi zuen, 77tik 79ra. Berak aitortu digunez, igerilekuan hobeto moldatzen zen, “itsasoak errespeto pilo eman dit beti”. 18 urterekin laga zuen igeriketa; “Ordurako, psikologikoki batez ere, nahiko nekatuta nengoen. Dena dela, oso oroitzapen onak ditut”. Igeriketari lotuta jarraitzen du, Arrasateko Musakolako Kiroldagiko monitoreetako bat delako. /E.M.

“Gipuzkoan, Bergarako taldea punta-puntan zegoen 1970eko hamarkadan, neurri handi baten, Jesus Jauregi entrenatzaileari esker”

Aintzane Arizmendi • Bergara • 1962



Nire Pronostikoa


LANDER ERRASTI / Arrasateko saskibalo taldeko entrenatzailea

Egia esan, ez dut maila gehietako futbola gehiegi jarraitzen. Badakit Arrasateko taldea ez dabilela batere ondo azken urteetan, eta lehen erregionalean ere ez dagoela igoera lortzeko postuetan. Hala ere, ea Ostadarri irabazten dion, azken jardunaldian erraz irabazi baitzuen.

Preferente mailan, UDA eta Aloña Mendi ere sasoi onean daudela dirudi, eta ondo egongo litzateke berriro ere irabaztea. Azkenik, Bergarari dagokionez, antza denez, jaitsiera postuetatik gertu dira, eta beraz, ezinbestekoa izango da UPVren kontra hiru puntuak lortzea.

Oraingo astebukaerako partiduak

A/ Ostadar	1	Mondragon	2
B/ Gwendolyne	0	UDA	1
C/ Aloña Mendi	3	Hondarribia	0
D/ Bergara	2	UPV	1



Goienako kanpo produkzioak

Gure unitate ibiltaria zure esku



Jaialdiak

Hitzaldiak,
batzar orokorrak,

Antzerkiak
eta musika

Kirolak:
futbola,
pilota,
eskubaloia,
saskibaloia

BATZAR OROKORRA



Aurrekontua eskatu

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko martxoaren 23a

Kultura
eta
Aisialdia



Martxoaren
23tik 30era

Bailarako ia herri guztiak dute museoren bat egiteko asmoa

Ezin esan gure eskualdean museo pila bat daudela. Hala ere, erren samar gaudela pentsatu arren, badira zabalik dauden pare bat. Zabalik daudenez gain, badira proiektu eskaintza osatzen duten beste zenbait ere. Bailara kontzeptu moduan hartuta baino, herrika ari dira proiektuok garatzen, eta horrela, Gatzagan dagoen gatz museoaz gain eta Eskoriatzan etnografia eta historia gaitzat dituen museoaz aparte, badira bestelako egitasmoak ere. Arrasate, Bergara, Elgeta eta Oñati ere museodunen artean sartuko dira; hori da, behintzat, asmoa.

Bailaran sortu da nolabaiteko ardura museoak duten garrantziaz. Udal gehienetan,

kulturaz arduratzen den teknikariak dihardu egitasmoak garatzen, hala ere, turismo teknikariarendako ere bada lan-tresna. Bailarako turismo teknikari Ana Erizekin egon gara gu, eta hark esan digu, bailarako egitasmo bat baino, herriz herri lantzen ari direla museoen kontu hori guztia. Udal bakoitzak bere proiektua duen arren, Ana Eriz gertatzen den guztiaren gainean dago, turismoari zuzen-zuzenean dagokio eta: "Nire ustez, museoek bertako ondarea ezagutzeko balio dute. Zenbat eta eskaintza zabalagoa, hobeto izango da herri bakoitzeko berezitasunak eta abar ezagutzeko. Ez dugu museo larregi ere: Gatzagakoa oso berria da, eta Eskoriatzakoa gehiago egon da eskoletara

bideratua. Ezin esan, bada, tradizio handia dagoenik museoak ikustera joateko. Hala ere, berritasun honek emango ditu fruituak geroago, gauza horiek poliki-poliki egin behar izaten dira eta erantzuna epe luzeagorako utzi. Museoek oraindik bere bidea egiteko daukate".

Debagoienez, laster, ez da bi museora mugatuko ikuslearendako eskaintza. Elgetan mendi museoaren proiektua garatzen ari dira, Bergaran Arantzadiren inguruan badago beste proiektu bat, Oñatin errota bat berri eta jendeari erakusteko asmoa dago, eta Arrasaten, industria izango du gaitzat museoak.

Eskaintza asko handituko da, eta turismoa eta kultura irabazle aterako dira. /14

GURIE MUSEOAK



Museoak | Debagoienean dauden museoak eta proiektu berriak

Museo bana bailarako herrietan?

GURE ESKUALDEAN BI MUSEO DAUDE, BAINA BERRIAK EGITEKO MAKINA BAT EGITASMO

Debagoieneko eskaintza ez da hain zabala oraindik, hala ere, egitasmoak badira, eta ikusiko ditugu ea egin daitezkeen edo ez. Dagoeneko zabalik dauden museoetan gatzaren prozesua, alde batetik, eta bestetik, historia, etnografia eta historiaurrearen berri jaso daiteke. Eta datozen museoekin zer? Mendi museo bat, antzinako zientzia institutukoa, energia-indarrarena, industria museoa... Dagoeneko zabalik daudenak, nahiz egitasmo baino ez direnak jaso ditugu erreportaje honetan.

ELGETAN MENDI MUSEOA

Elgetan mendi museoa egiteko nahian dabilta. Proiektua maiaterako egina egongo da, eta 500 milioi inguruko aurrekontuarekin jokatu du udalak. Nahiko berde dago oraindik kontu guztia, eta proiektuaren nondik norakoa herriak erabaki dezan, udalak lauko taldea osatuko du zinegotzi eta alkatearekin batera. Jarraipen batzorde bat izango da, nolabait esateko. Elgetak turismoa erakartzeko egindako ekimena izango da, eta beste zenbait proiektuarekin batera aurkeztuko dute. Osotasun baten zati dela esan dezakegu, beraz.

MUSEO INDUSTRIALA ARRASATEN

Arrasaten museo txikitxo batekin hasiko dira erakusteko eran, hala ere, etorkizuneko museoa abian jarzteko bidea baino ez da izango. Cerrajerako bigarren pisuan ipiniko dute museoa, eta herriko historia industrialaren garapena erakustea izango da asmoa. Dagoeneko zenbait makina eskuratu dituzte, eta horien artean dira Ifamekoak eta lehengo Zerrajerakoak. 800 metro koadro izango dituen museoan, 1850etik orain arteko historia industrial jaso gura dute. Erakusketako makina zaharrenak 1920koak izango dira, eta berriak 60koak. Lanak zatika egingo ditu udalak, hasteko, 1920-1970 urteei dagokien erakusketa antolatuko du eta. Jon Garaik esandakoa da museo honetan herriko lantegiez gain, jendeak ere lagundu beharko duela erakusketa osatzeko; makina zaharrak, idatziak, argazki zaharrak eta antzerakoak lagatzen, alegia.

ERREGE SEMINARIOKO BILDUMA

Bergaran, errege seminarioko bilduma hau galtzeko zorian zen: piezak lurrera botata, puskatuta, ondoekin... Udalak, hori ikusirik, 1992tik dihardu horretarako bitartekoak jarrita. Bergarako errege seminarioan zegoen bilduma jasota, logikoa dirudi bertan zabaltzea museoa, dena dela, oraindik ez dago argi zein izango de kokalekua.

XVI. mendetik aurrera hainbat



GATZ EKOMUSEOA


Leintz Gatzaga

Gatzagako museoak ez du denbora tarte luzerik zabalik dagoela, hala ere gure bailaran dauden bietarik bat izanda, gero eta gertunago egiten hasia dago. Nahiko berria da museoa, izan ere, ia zozkailatik aurrera hasi zen eta zabaltzen. Gatzagaren inguruko kontu guztiak aurkituko ditugu bertan. Jakina da herri honek gatzarekin duen lotura zuzena eta lotura hori gainontzeko herriei zein den erakustea izan da helburua. Herriaren izenak izana ere badu orain eta izenaren nondik norakoak ere erakusten dituzte museoan. Modu didaktikoan erakusten dute gatzak nola lantzen zuten. Prozesu tradizionala nolakoa den erakusten dute eta aipatzen dute hainbat garai egon direla gatzak ateratzen hasi zirenetik gaurko supermerkatuetan dugun gatz zorrotaraino. Gatzak historian zehar izandako garrantzia du ardatz erakusketak, eta era oso grafikoa erakusten dute nola ateratzen duten gatzak gatz-uretik. Gurpilak nola funtzionatzen duen, gatz-mahaia aitzur eta guzti, eta beste erakusten dira.

Bideo bidez erakusten dute gatzak gurè gizartean izan duen garrantzia. Gurpilen bidez gatz-ura nola ateratzen zuten ere erakusten dute. Nahiko berria dela kontuan harturik, jende dezente gerturatu da Gatzagako gatz museora, eta hangoak oso pozik daude jendeak izan duen harrerarekin. Harrera oso ona izan da. Lehen, erakusketa gidatua egiteko aukera zegoen, eta Nerea Zubietek horretan jarduten zuen. Orain, beriz, egunero-egunero jendea egoten ez bada ere, herriko udaletxera deituta museoa bisitatzeko aukera dago. Museoak ikusteko: 943 71 47 46 telefonora dei dezakezue. Oraintxe ari dira museoaren ordutegia zehaztu nahian, oraindik baina, ez dago ordutegia zein den esaterik.


modutara ezagutu izan da eraikina: Jesuiten kolegioa izan zen lehenengo, Peñafloredak antolatutako hezkuntza zentro entzutetsua gero, Gipuzkoak izan zuen probintziako lehenengo institutua, eta urte askotan bakarra, ere izan zen, ondoren Eskola Industrial ofiziala (estatu mailan ingeniari-titulua ematen zuten lau bakarrak zeuden, eta Bergarako bat), Dominikoen eskola ere izan da azkenengo garaian, eta orain UNED moduan ezagutzen dugu.

Horrela, jasotako material guztia ez da erakunde berarena. Eskola horiek guztiak gabinetek onak, liburu



Arrasaten egin nahi den museo industrialean erakutsiko den pieza bat.

asko, laborategiak... edukitzen saiatu ziren. Hala ere piezak galduta, apurtuta, sakabanatuta...



ESKORIATZAKO MUSEO ESKOLA

Eskoriatza

Hasiera batean eskolara, edo, behintzat, eskola umeen irakaskuntzara, bideratua dago museoa. Oraindik ere autobuskadak joaten dira, historia, modu ezberdin eta entretenigarrian ikastera, eta han egoten da Isabel Guridi, azalpenak emateko prest. Lehen arratsalde ere egoten zen zabalik, hala ere, orain bera bakarrik egoten da, eta hori horrela izanik, goizetan bakarrik dago ziurtatuta museoa ikusteko bidea.

Batez ere irakaskuntza mailara bideratuta dago museoa. Maila guztietako jendea joaten da, izan Oinarrizko Hezkuntza Orokorretik, izan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik. Barnetegi eta euskaltegietatik ere jendea joaten da. Hala izan dadin badute euskalgintzarako erakargarria den txoko bat, euskal errito, mito, leienda eta gure kultura ardatz dituen. Txoko honek harrera ona izaten omen du, baina horrez gain hainbat kontu ikus ditzakezue museoan.

Orain dela 500 urteko ontziak, zerrailak... gaur altzairuzkoak edo elektronikoak direla erakusten da etnografiari dagokionez. Historian, Neolitotik hasita aro modernora arteko berri jakin dezakezue. Euskal Herriatik hasi eta Europaraino bideratzen dira azalpenak, eta horrela gertutasunetik urrunago dagoen espaziora eta pentsamenduetara salto egiteko aukera ematen dute, nolabait ere, orokortasuna ikusteko norberaren kolkotik begira hasi eta gero. Museoak, duela 14 urtetik dago zabalik, eta duen arrakasta, modu batean, urte guzti horietan metatutako esperientziatik ere badator. Telefonoz deituta hitzartu daiteke bisita gidatua, hala ere, goizez zabalik egoten da edonorentzako 9:00etatik 13:00etara. Bisitaldi gidatuak lortzeko telefona, museoak bera: 943 71 54 53 (Isabel Guridi)

heldu zaizkigu, eta horrela egoteko ez dute arrazoirik falta: Konbentzio Gerra, Gerra Napoleoniakoa, I. eta II. Karlistaldiak eta azkenengo Gerra Zibila ez ziren alferrik izan. Orain antzinako zientzia institutua, zoologia, giza anatomia, mineralogia eta paleontologia museoak leku eske dator.

ENERGIA MUSEOA OÑATIN

Oñatiri dagokionez, esan, aspaldikoak direla hemen aipatuko ditugun proiektuak: "Jaruteko indar etxea" dago batetik, bertan, JM Heideinim (1913) markako turbina bat

dago eta baita Ericson markako telefono zahar bat ere. Oñatin, lehen, Union Cerrajerarako hartzen zen argi indarra, eta oraingo asmoa erakiri hori energia museoa egitekoa da. Turismo bulegoa ere zabaldu gura dute errota berriztatukoan. San Migel errota herrian bertan dago eta turismorako informazio gunea izateaz gain erakustoki eta erdi-museo ere izango da. Harriak inguruko espeleologia museoak ere badute egiteko, baina hori epe luzerako izango omen da.

Musika | Anari eta Bonnie Prince Billy Oñatiko Gaztelekuan

Kontzertu bikaina..., perfektua

Non: Oñatiko gaztelekuan. Noiz: martxoaren 17an, domeka, 20:00etan. Zenbat jende: 400 lagun.

Gaztemaniaken ohiko gozotasun musikala Oñatira heldu zen oraino, bertako Gaztelekuan Bonnie Prince Billy eta Anariren kontzertua antolatzeko. Nahigabe musikalaren, konposizioen moteltasunaren eta aurrez definitutako konbentzionalismo musikalen bideetatik ibiliz gozaten duten egile bi.

Gure lehenengo txaloak Gaztemaniakentzat, gure herrialdetik beste inolaz ere pasatuko ez liratekeen soinu desberdin horiek, gero eta zabalagoa den ikusleria hurbiltzen dien ekimena izateagatik. Hooverphonic, For Stars, Mouse on Mars edota The Delgados izan dira Gipuzkoako agertokietan gozatu ahal izan ditugun azkenetakoak.

Bonnie Prince Billyren mutilek (hau da, Will Oldham eta bere taldea) Gaztelekura heltzeko izandako arazoan ondorioz, aurretik pentsatutako hurrenkera, Anari lehenengo eta Bonnie Prince ondoren alegia, aldatu behar izan zuten. Eta horrela hobe.

Esandako ordua baino geroxeago, Will Oldhamen ahotsak eta nortasunak zuzendutako Bonnie Prince Billy atera zen agertokira. Bere emanaldia azaltzeko adjektiboen bila hasiz gero, errazena da egokiena: bikaina! Zeren eta ahotsa batzuetan harmoniarik gabekoa den arren (arruntaren gainetik pertsonala agertzen den melodia horiek, munduko popan aberastasuna eta berezitasuna ematen dioten bere ukitu bitxiak); abestien zerranda liburuxka bate-



Bonnie Prince Billy taldea.

IBAN ARANTZABAL

an egonda taldekideek uenean eko euren gogoen arabera hurrenkera aldatzen duten arren (maisutasun musikala orbangabea izan zen. Beharbada adierazkortasuna dela eta batera joleak irabazi zituen puntu gehien); kontzertuaren iraupenari dagokionez zorrotza izan zen arren (60 minutu, hasiberrirentzat ez ziren nahikoa izan), Will Oldhamek beti liluratuko gaitu, baita panderoarekin etorri eta eserleku baten gainean txinatar jantzita jotzen badu ere. Eta biraren hurrengo kontzertuetan aldaketak egongo zirela pentsatzen dugu, ahotsa zoragarria izango litzateke beste bide batzuetatik joanda ere, malenkonía, gabezia, abestiak beste batzuk izan

litezke... Eta hala ere liluratu egingo gintuzke. Lastima bere azken diskoa (kaleratu berri duten *Ease Down The Road*) kontzertu ostean jarri zuten standean salgai ez egotea. Euren Pariseko kontzertuen ondoren agortu zen. Ez da harritzekoa. 2001 honetatik gogoratuko ditugun disko onenetatik lehenengo da country-popean egin duen sarraldia.

Anari ikustea, geografian hurbilagoa den arren, beti da gozamen. Zaila da oraindik ere, abesterakoan eta kontatzerakoan bere samurtasuna duen emakumezko euskal artistarik aurkitzea. Anari bezala inor ez, paraje ederrak barneko ahots horrekin eraikitzen laguntzeko, euskara zainduan,

dotorean, trisurak eta ametsak kontatzen jarraitzen duela. Zuzenekoak landuago daukate eta taldea trinkoago agertzen da. Bere emanaldian, ezaguna izan arren, une gorenak izan ziren, batzuk aukeratzeagatik, Anari Alberdik bakarka bere gitarrarekin jo zituen abestiak, "zerra melodiko" batek lagunduta egin zituenak eta *Habiak* bere azken lanaren zenbait abesti... Ez dago urrun joan beharrik edozein hizkuntzatan gauza miragarriak aurkitzeko. Zalantzarik gabe (eta Penintsulan konturatzen hasiak dira), gure artistarik pertsonalena eta kanpora eramateko aukerakoa.

JUAN LUIS ETXEBERRIA

Nire aukera

Alfredo Meabe Aretxabaletako Errasti dendakoa


Nobela historikoa oso gustuko ditut. Bat aukeratzekotan, *El Médico*. Duela urtebete



irakurri nuen, eta harrigarria iruditzen zitzaidan Noah Gordon idazleak liburu honetan egin zuen dokumentazio lana. Juduen bizitza, orduko sendagileen lana, tokien deskribapenak... Ingalaterran hasi eta Asiara arteko bidaia zoragarria kontatzen digu. Abenturazalea ere banaiz, beraz, liburu horrek berehala harrapatu ninduen.

El Médico liburuaren jarraipena ere irakurri dut *Chaman*. Aurrekoa, baina, gehiago gustatu zitzaidan. *Chaman II* eta *La doctora Cole* ere laster irakurriko ditut.

'EL MEDICO' Noah Gordon




LEIRE KORTABARRIA

Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA | Bilduma



GUTUZIAK
Askoren artean
Txalaparta,
2000
229 orrialde

Hogeita bederatzia euskal emakumeren gutuziak. Bilduman emakumeak jaun eta jabe: Aurelia Arkotxa, Yolanda Arrieta, Begoña Bilbao, Itxaro Borda, Aitzpea Goenaga, Lierni Ibartutxi, Arantxa Iturbe, Pili Kaltzada, Mariasun Landa, Goizalde Landabaso, Amaia Lasa, Miren Agur Meabe, Lourdes Oñederra, Jasone Osoro, Ana Urkiza... (Arantxa Urretabizkaia falta da esaterako). Ipuin gehienetan emakumeak dira protagonistak, eta sexua eta maitasuna dira nagusi testuetan.

LIBURUA | Ipuinak



GEURE IPUINAK
Xabier Etxaniz
Erle
Pamiela
267 orrialde

Wentworth Webster-ek 1877an esan zuen moduan: "Harro geundeko ipuin hauek jasotzean izandako atsegin handia baldin balute irakurleek ipuinak irakurtzean". Horixe bera diote liburuaren egileek ere gutxi gorabehera. Liburu honetan aurkituko ditugu Aladino-ren euskal bertsioa, Ziklope klasikoaren anaia Tartaro, Grimm anaien euskal bertsioak... Hainbat bildumatan ikertzaileentzako bakarrik eskura zeuden ipuinok, helduen bitartez haurren mundura hurbiltzeko bidea egin dezakete.

DISKOA | Rock-a



NON DEMONDRE
Gaztelupeko hotsak
Hamar kanta

Musikalki berritasunez josia dator eta baita bestela ere Elorriko taldea. Beharbada ohituagoak gaude bideo klipak ikustera, baina ez horrenbeste bideo klip interaktibotara. Diseinu txukuna du dudarik gabe eta bideo interaktiboa ere ez da gutxiagorako. Gela bat? Belarritakoak? Gutxienik kontraera interesgarri bat.

Aldatzeko gai ei gara ekiteko lain, kontsumo itsutik kanpo gizarte ezberdinik ba omen daude nonbait. Non Demondre: diseinuaz gain hitz landuak eta itxura zainduak.

Martxoa: 23-30

Edu Mendibil / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Antzerkia

ARRASATE

> **Tim & Casildaren** ipuin kontaketa (ingelesez-gaztelaniaz) eguaztanean, hilak 28, Monterronen: 18:00etan gazteendako liburutegian, eta 19:00etan helduendako hitzaldi aretoan.

EIBAR

> **Elbarko XXIV. antzerki jardunaldiak.** **Vaiven** taldearen *Lotsa-gabe* antzezlan astelehenean, hilak 26; **Escuela de Arte Dramatico** taldearen *Divinas palabras* martitzenean, hilak 27; **Suripanta Teatrotan** *El inspector* datorren egubakoitzean, hilak 30, eta **Traspasos** taldearen *Pepe el romano. La sombra blanca de Bernarda Alba* martxoaren 31n. Emanaldi guztiak Unibertsitate Laboralean, 20:30ean.

ELORRIO

> **Producciones Yllana** taldearen *Rock & clown* antzerki lana egubakoitzean, hilak 23, Arriola aretoan, 22:30ean.
> **Teatro Paraiso** taldearen *Kox-Kox* antzerkia domekan, hilak 25, Arriola aretoan, 17:00etan. Umeendako antzezlan.

Musika

ARETXABALETAK

> **Anje Duhalde** datorren egubakoitzean, hilak 30, Kurtzebarri eskolako aretoan, 22:30ean.

ARRASATE

> **Debagoieneko eskola arteko abesbatzen** topaketa zapatuan, hilak 24, Amaia antzokian, 11:30ean.
> **Señor No** eta **Fase Terminal** zapatuan, hilak 24, gaztetxean, 22:00etan.
> **Arrasate Musikaleko musika bandaren** kontzertua domekan, hilak 25, Amaia antzokian, 12:30ean.
> **Haragi gordina** taldea datorren zapatuan, hilak 31, Amaia antzokian, 22:30ean. Korrika Kulturalaren barruan antolatuta.

ELGETA

> **Dusminguet** eta **Eztanda** zapatuan, hilak 24, gaztetxean, 23:00etan. Gaztetxearen V. urteurrena ospatzeko.

OÑATI

> **Mikel Telleria** egubakoitzean, hilak 23, Gaztelekuan, 22:30ean.

Erakusketak

ARETXABALETAK

> **Idoia Elexpururen** margolanak Durana kaleko 30. zenbakiko erakusketa txokoa, apirilaren 1a arte.

ARRASATE

> **Diana Orbe** margolariaren erakusketa Toki-Eder kafetegian, martxoaren bukaera arte.
> **Gure-Leku** tabernak deitutako margo lehiaketara aurkeztutako lanak tabernan daude ikusgai.

BERGARA

> **Kolonbia. Globalizazioaren isladak** izenburuko erakusketa Nahikari tabernan, martxoaren 25era arte.
> **Palestina komik** erakusketa Nahikari tabernan, martxoaren 26tik apirilaren 8a bitartean.
> **Ramon Arantzabal** margolari bergararraren erakusketa Donostiako alde zaharreko Colchoneria San Vicente tabernan.

OÑATI

> **Argazki erakusketa** Santanan, martxoaren 23tik 30era, Mendi Astearen programazioaren barruan.

EIBAR

> **Republikia. 1931-2001** erakusketa inaugurazioa martxoaren 29an, Portalean, 19:00etan. Erakusketa apirilaren 30a arte izango da ikusgai.

Lehiaketak

BERGARA

> **IV. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Lehiaketan, nahi duten artista guztiak parte hartu ahal izango dute, eta partaide bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Kartelen gaia *Zezenak Bergaran* izango da, eta lanek Bergarako motibo bat edukitzea beharrezkoa izango da. Estiloa eta teknika librea izango dira. Marko barik, euskarri gogorrean edo bastidorearekin aurkeztuko dira. Neurria: 55x46 zentimetro, gutxienez, eta

146x114 zentimetro, gehienez. Lanak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, astelehetik egubakoitzera, 2001eko maiatzaren 3a eta 10a bitartean, biak barne, 16:00etatik 21:00etara bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Sari banaketa 2001eko maiatzaren 19an egingo da, zezenketako kartelaren aurkezpen ekitaldian.

> XVI. literatura lehiaketa.

Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek esku har dezake. Adinaren arabera, bost talde egingo dira. Lan guztiak argitaragabek eta euskaraz idatziak izan beharko dira. Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 25ean bukatuko da, eta sariak ekainaren 9an banatuko dituzte. Argibide gehiago udaleko euskara zerbitzuan, 943 77 91 66 zenbakian.

AZPEITIA

> **Kartel lehiaketa.** Euskal antzerki topaketaren XIX. ekitaldia dela eta, Azpeitiko Udalak kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan esku hartzeko mugaguna: apirilaren 30a. Edozeinek parte har dezake, gehienez hiru lan aurkeztuz; lanak argitaratu barikoak izan beharko dira. Irabazleak 150.000 pezeta jasoko ditu. Argibide gehiago 943 15 72 00 telefono zenbakian.

Ikastaroak

BERGARA

> **Arin arin eta fandango** ikastaroa antolatu du Moises Aspiazu dantza taldeak, 12 urtetik gorakoendako. Eskolak zapatu goizetan izango dira. Izena ematea eta argibideak 943 76 15 40 telefono zenbakian.

OÑATI

> **Erretzeari lagatzeko ikastaroa** apirilaren 23tik maiatzaren 28ra bitartean, Minbiziaren Kontrako Elkarteak eta udaleko drogamenpekotasun prebentziarako departamentuak antolatuta. Eskolak astelehenetan izango dira, eta arratsalde, hiru ordutegi bereiztuko dira. Izena ematea (2.000 pezeta) apirilaren 10a arte udaleko Gizarte zerbitzuan edo 943 78 04 11 telefonora deituta.

Deiak

ARAMAIO

> **Pedro Pujana** euskaltzain zena-ren aldeko meza domekan, martxoak 24, Oletan, 11:00etan.

ARETXABALETAK

> **Hitzaldia.** *Hiru pauso, hiru norabide* izenburuko hitzaldia emango du Josu Iztuetak eguene-

an, hilak 29, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Korrikako ekitaldien barruan.

ANTZUOLA

> **Munduari itzulia 17 urtetan** hitzaldia martitzenean, hilak 27, udaletxean, 19:00etan. Santiago Gonzalez hondarribiarrak familiarekin belauntzian egindako bidaia azalduko du.

ARRASATE

> **Hitzaldia:** *MSTren antolaketa eta Brasilgo egoera* martitzenean, hilak 27, udaletxe batzar aretoan, 19:00etan. Hizlariak: Marcelino Joao Soares eta Valcir Ramiro de Oliveira (MSTko kideak). Komite Internazionalistak, Harreman eta Mugarik Gabeko Ingeniariak taldeek antolatuta.
> **Gipuzkoako diabetikoen elkarteak** antolatutako hitzaldia eguaztanean, hilak 28, udaletxe ko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

ARETXABALETAK

> **Internet ikastaroa,** Saretxo informatika taldeak antolatuta. Oinarrizko ikastaroa izango da, internet zer den eta nola erabili behar dugun erakutsiko delarik. Horrez gain, posta elektronikoa erabilera ere azalduko dute. Izena ematea Express tabernan, Aretxagazetan edota Saretxoko buzoian. Argibideak 943 79 10 51 (Alberto) telefono zenbakian.



MUSIKA

DEBAGOIENEO ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN TOPAKETA

Eskola arteko abesbatzen XIV. topaketa, goizeko saioan haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako taldeen txar-da izango da, eta bukaeran, Elena Romok zuzentzen duen Banda Txikiaren emanaldia izango da. Arratsalde, 4., 5. eta 6. mailetako bost abesbatza arituko dira kantuan, eta baita Arizmendi ikastolako abesbatza. Bukatzeko, Goikobalu Txiki abesbatzak hainbat kantu eskainiko ditu, Rakel Murgiondoren zuzendaritzapean.

Noiz: Martxoaren 24an. **Tokia:** Arrasateko Amaia antzokian. **Ordua:** 11:30ean eta 17:00etan.



LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE
943 79 27 27 • 943 79 13 55

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu,
etor zaitez *Goienkariaren* ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigararen* egoitzan, Barrenkalea, 33

943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31

943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretxagazetaren* egoitzan; Durana, 11

943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11


945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salbador, 26

943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1

943 76 60 62




Goienkaria,
bailarako
hedabide nagusia.

Astero
20.000 etxetan.


Prezioa:
10.000 pezeta.

JAIOTAKOAK

Elisabet Rodriguez Irizar Bergaran, martxoaren 8an.
Ibon Perez Markuleta Oñatin, martxoaren 11n.
Maitane Urkiola Martinez Bergaran, martxoaren 11n.
Jon Armendariz Gonzalez Bergaran, martxoaren 12an.
Ander Irizar Mendizabal Oñatin, martxoaren 14an.
Sofia Larrañaga Altuna Aramaion, martxoaren 15ean.
Aitor Sanjeronimo Barquero Arrasaten, martxoaren 15ean.
Aitor Esnaola Soraluze Bergaran, martxoaren 17an.



Aitor Sanjeronimo Barquero, Rosi eta Jacinto gurasoekin, mondagoetarrak hirurak. Aitor martxoaren 15ean jaio zen, eta 3,260 kilo pisatu zuen.



Maite Larrañaga Diaz de Gereñu eta Ainhoa ama, eskoriatzarrak biak. Martxoaren 16an jaio zen Maite, eta 4,090 kilo pisatu zuen. **Jagoba** da aita, bergararra.



Sofia Larrañaga Altuna aramaioarra eta **Izaskun** ama, mondagoetarra. Sofia martxoaren 15ean jaio zen, eta 3,100 kilo pisatu zuen. **Jesus** da aita, mondagoetarra.

HILDAKOAK

Dionisio Biain Arriaran Eskoriatzan, martxoaren 14an, 77 urte zituela.
Domingo Osa Altzibar Oñatin, martxoaren 15ean, 70 urte zituela.
Maria Pilar Lizarra Maiz Oñatin, martxoaren 15ean, 50 urte zituela.
Sabino Urtzelai Gantxegi Bergaran, martxoaren 16an, 95 urte zituela.
Agustina Mateos Diaz Arrasaten, martxoaren 17an, 89 urte zituela.
Juana Zubia Ormazabal Oñatin, martxoaren 18an, 82 urte zituela.
Ignacio Lejardi Madariaga Arrasaten, martxoaren 20an, 81 urte zituela.



Ander Irizar Mendizabal eta Ana ama, oñatiarrek biak. Martxoaren 14an jaio zen Ander, eta 3,640 kilo pisatu zuen. **Roberto** da aita, oñatiarra bera ere.



Nahia Pascual Fernandez de Jauregi eskoriatzarra amarekin eta **Gorka** lehengusuarekin. **Pilar** da ama, eskoriatzarra. Martxoaren 18an jaio zen Nahia, eta 2,450 kilo pisatu zuen. **Jabi** da aita, mondagoetarra.



Urko Bizkarra Mendizabal mondagoetarra **Margarit** amarekin. Urko martxoaren 15ean jaio zen, eta 2,800 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Saioa** eta **Aitzol** dira, mondagoetarra ama, eta **Matie** nakoia aita.

EZKONDUAK

Gabriel Villalba Martinez eta Maria Judith Arriolabengoa Unzueta, martxoaren 14an, Aramaion.
Jose Antonio Toubes Garcia eta Luz Myriam Parra Gabiria, martxoaren 17an, Arrasaten.



Joseba Molinero eta Ana Larrea oñatiarrek joan den zapatuan, martxoaren 17an, ezkondu ziren Arantzazun. Euren senide eta lagunek zorionak opa nahi dizkiete. Zorionak, bada, bikote!

ESKER ONA

Jose Luis Elustondo Marin

Arrasaten hil zen
2001eko martxoaren 4an.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Sabino Urtzelai Gantxegi

Osintxun hil zen
2001eko martxoaren 16an,
75 urte zituela.



Emazteak, seme-alabek, ilobek, bilobak, anai-arrebek eta ezkon anai-arrebek bihotzez eskertzen dute jasotako doluminak eta hileta elizkizunetara etorri izana.

III. URTEURRENA

Unai Zubikarai Auzmendi

1998ko martxoaren 20an hil zen,
mendi istripuz Pico Gourgs
Blaus-en (Huesca),
24 urte zituela



Zure gurasoak Angel (†) eta Antxoni, arreba Leire eta Esteban.

II. URTEURRENA

Jose Luis Garay Azkarretazabal

Bigarren urteurreneko meza,
domekan, martxoak 25,
12:30ean, Arrasateko San Juan
Bataiatzailearen parrokian.



Aurrez esker ona bertaratzen zareten guztioi. Bere emazte eta seme-alabek.

ESKELA

Eugenio Aiala Abarrategi


Bartzelonan hil zen, 2001eko martxoaren 17an, 26 urte zituela.

*Hasi duzun bidaiak ez gaitu aldenduko
Gure artean zera ta ez zaitugu ahaztuko
Zure irrifarrea zeru zabalean
biziko baita beti gure bihotzean*



Eugenioren lagunak

Eguraldia



ZAPATUA, 24

Egun lainotsua izango dugu zapatua. Euri txikia ere egin dezake. Temperatura jaitsi egingo da pixka bat.

DOMEKA, 25

Lainotuta izango ditugu zeruak domekan. Temperatura jaitsi egingo da pixka bat. Haizea hego-mendebaletik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Egun euritsuua. Errioxa: Zaparradak. Pirinloak: Zaparradak.

Nafarroako Erribera: Euria nagusi. Errioxa: Egun euritsuua. Pirinloak: Zaparradak.

Urkuluko urtegia

Gora eta gora doa Urkuluko urtegiaren ur malla. Azkenengo asteetan bezala, oraingo asteen ere igo egin da ur malla. Joan den asteen, %94,65 zen; oraingo asteen, berriz, %95,72.

%95,7


ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

13,7°C

ILARGIAREN ALDIAK: MARTXOA



EGUZKIA: MARTXOAREN 25a



Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan 08:30, 12:00. Zapatuetan 08:30, 12:00, 19:30. Domeka eta jaiegunetan 09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Telefonoak

((112)) SOS DEIAK

Table with 2 columns: Location and Phone Number. Includes Bergara, Elgeta, Eskoriatza, etc.

Table with 2 columns: Location and Phone Number. Includes DEBAGOIENA, Kultura Etxeak, Udalak.

Table with 2 columns: Location and Phone Number. Includes Aramaio, Arrasate, Bergara, etc.

GARRIAOAK

Table with 2 columns: Service and Phone Number. Includes Eusko Trenbideak, PESA, Taxiak.

OSASUNA / LARRIALDIAK

Table with 2 columns: Service and Phone Number. Includes DYA (Orokorra), DYA (Antzuola), etc.

Table with 2 columns: Service and Phone Number. Includes Ertzaintza, Arrasate, Bergara, etc.

Zozketak

BONOLOTOA

Table with 4 columns: Draw Date and Winning Numbers. Includes EGUAZTENA 21, MARTITZENA 20, ASTELEHENA 19, EGUBAKOITZA 16.

LOTERIA PRIMITIBOA

Table with 5 columns: Draw Date and Winning Numbers. Includes Saritzarra EGUENA 15, DOMEKA 18, ZAPATUA 17.

ONCE

Table with 4 columns: Draw Date and Winning Numbers. Includes EGUAZTENA 21, MARTITZENA 20, ASTELEHENA 19, DOMEKA 18.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta igandeak

DONOSTIA-GASTEIZ

Table with 5 columns: BERGARA, ARRASATE, ESKOLA P., ARETXABALETA, ESKORIATZA. Shows bus schedules with departure times.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

Table with 5 columns: GASTEIZ, ESKORIATZA, ARETXABALETA, ARRASATE, BERGARA. Shows bus schedules with departure times.

DONOSTIA-BILBO

Table with 5 columns: DONOSTIA, ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA, BERGARA-ONATI. Shows bus schedules with departure times.

BILBO-DONOSTIA

Table with 5 columns: BILBO, ELGETA, BERGARA, ANTZUOLA, ONATI-BERGARA. Shows bus schedules with departure times.

ONATI-ARRASATE-BILBO

Table with 5 columns: ONATI, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, ONATI. Shows bus schedules with departure times.

BERGARA-ARRASATE-BILBO

Table with 5 columns: BERGARA, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, BERGARA. Shows bus schedules with departure times.

BERGARA-ONATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA

Table with 5 columns: BERGARA, ONATI, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA. Shows bus schedules with departure times.

ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-ONATI-BERGARA-EIBAR

Table with 5 columns: ESKORIATZA, ARETXABALETA, ARRASATE, ONATI, BERGARA. Shows bus schedules with departure times.

BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA

Table with 5 columns: BERGARA, ANTZUOLA, IRUÑEA, ANTZUOLA, BERGARA. Shows bus schedules with departure times.

Erakunde hauen laguntzaz



Arrasateko Udala Aramaioko Udala Aretxabaleto Udala

Eskoriatzako Udala Leintz Gatzagako Udala Antzuolako Udala



Umore giroan

Izaro Aperribai

NON DAGO BRASIL?

Umia eskolatik etxera ailegau da negarrez, eta amak:

- Zer, ume?
- Jo egin doste.
- Zergatik, ba?
- Brasil nun zeguan ez nekixelako.
- Esaten dotsut ba nik, gauzak erabili eta gero bere tokixan gordetzeko...

KARRERIA

Plazentzian, "legatza" esan biharian "legasa" eta "Zarautz" esan biharian "Saraus" esaten dabe, eta behin, txirindulari karrera pasau zan herritik. Herriko bat, Patxi, zihioian trope- lian, baina karrera pasau zan eta Patxi ez zan

agertzen.

- Hi, Patxi nun jak, ba?
- Patxi, asian...
- Asian, hau zer dok ba, Tourra ala?

ELOSUTIK BEHERA

Elosun satsa batzen jardun eta gero, badoiaz bi lagun kamioian Bergararutz. Hala, batian, Perulde aldiari, ertzainek altua emon dotse:

- Autoko paperak?
- Guk ez daukagu halako- rik, Elosun lanian ibili gara.
- Baina, ez dakizue zer egin dozuena ala?
- Guk?
- Bai, Elosuko apaiza harrapau dozue.
- NIK bai haundiegixa zala katua izateko.

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



Zein herrik sortzen du aberastasun gehien biztanleko?

Barne Produktu Gordina (BPG) deitzen zaio herri batek epe jakin baten (normalean urtebete) sortzen dituen ondasun eta zerbitzuen balioari. 1996ko zentsuan jaso zen informazioetako bat horixe izan zen. Asmatuko ote zenuke zein zen orduan biztanleko BPG altuena zuen herria?

- Oñati
- Elgeta
- Antzuola

Erantzun zuzena: Antzuola (3.554.000 pezeta biztanleko). Elgeta (3.338.000 pezeta). Oñati (2.896.000 pezeta).

Soluzioak



Ezker eskuma
1/ Mendealde, 2/ Usaina, 3/ Gero, 4/ IKA, 5/ Mimika, 6/ E. Agurtu, 7/ Na. Oro, 8/ Dun. Rato, 9/ Uz. Sakelak, 10/ Alzak, 11/ Lezo.
Goitik behera
1/ Migimendua, 2/ Esek, 3/ Nara, ma. N. Z. 4/ Dio. Igo. Sa. 5/ En. Ikurrak. 6/ Balderak, 7/ A. Al. Totel, 8/ Lor. Su. 9/ Dirra. Zoaz, 10/ Enezt, Ko.

Hitz gurutzatuak

Luma

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									



Ezker eskuma

1/ Sartalde. 2/ Lurrina. Zango-atal. 3/ Etorbizunean. Soro. 4/ Ilcas eta Ari. Zezen zikiratu. Oinarrizko edari. Antezlan mutua. Putre. 6/ Bolcala. Agur egin. Tona. 7/ Sodioa. Oihu. Kontsonante erreplikatua. 8/ Noka, duzu. Bi magnituderen artelco erlazio. 9/ Uztailaren hasieran. Poltsikoak. 10/ Adi ezak! Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1/ Higadura. 2.- Zintzilikatu. Arazo. 3/ Nik hura daramat, eta hark ni ... Nitrogenoa. Azkenekoa. 4/ Esaten du. Gora egin. Atzizkia. 5.- Noren atzizkia. Markak. 6/ Traketsak. 7/ Bokala. interjekzioa. Hitz motel. 8/ Infin., lortu. Gar. Bilo. 9/ Sosa. Joan zaitez! 10/ Gizon izena. Erreplikatuta, fruitu tropikala.

Bila-bila 7



Horoskopoa

Berenize

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Zure isolamenduak erakutsiko dizu zein den zure betebeharrak bizitzan. Ez zaitez zeure burua ezagutzeko beldur izan, horrela teknika eta kontzientzia hobetuko dituzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Beste balorazio baten bila zabilta. Orain ulertu dizu sendotasuna eta sentiberatasuna ez direla aurkakoa. Atera zure distira kanpora.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Harremanetarako duzun gaitasunak behar gogorrek egitera bultzatuko zaitu. Hala ere, zeure ahalegin bakartian emaitzak topatuko dituzu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Harremanak baztertu gabe, zu zeu izaten ikasiko duzu, eta gainera, hartu-emanak izateko modu berri hori erabiltzen jakingo duzu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Bakarrik eta baztertuta zaudela, konturatu zara norbaitekin ibiltzea zein garrantzitsua den, onartzea kostatzen zaizun arren.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Kontuz diotzunarekin, eta adi zer sinatzen duzun, zure euforiak ez dizu-eta non sartu behar duzun ikusten uzten.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Barrutik borrokan zabilzala, kanpotik lasai itxurak egitea ez da batere osasun-garria. Lasaitasuna nahi baduzu onar ezazu zerk eragozten dizun.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Zeure asmoak atzeratu edo geldiaraziko dituzten azken orduko arazoak. Bilatu arazoak lasaitasunez, eta irtenbidea aurkituko diezu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Erabili ezazu zure barne indarra, zein pauso eman behar dituzun eta zeure burua nola prestatu behar duzun ikusteko.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Zaindu zeure burua, zure hezurak eta mokorrak, oraingo astean arazoak eman diezazkizukete eta. Kontuz mugimendu bortitzekin.

AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Hasieran arriskatutakoak lehen emaitzak emango dizkizu. Jarraitu informazioa bilatzen.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Zu zeu izan gabe, ez zaude zeure buruarekin gustura. Utz ezazu atzean aro hori, eta argitu ezazu zeure jokaera.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Bailarako

berriak,

bailarako

jendea,

bailarako

telebistan.

Goitb
Goiena Telebista

Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com


Telebegi

Indigenak

Hemen, setiatutako indigena da euskalduna. Erdal hizkuntzak eraikitako kartzelako ziega arrotzetan bizi da, hemen, euskaldun indigena. Hemengo kartzelako patioan, uzkurra da euskaldun indigenaren ibilera, harat-honat ermetzen ditu belarriak, mesfidati, ezagun hizkeraren aztarna txikiaren peskizan. Taldetxotan bildu ohi da, hemen, euskaldun indigena, ziega barruan ziegatxo are mugatuagoak eraikiz. Eta marmarrean mintzo dira beraien artean, isilpean, kartzelako bizilagun etsaitsuak asaldatu ez daitezten.

Zera diote hemengo zaharrek: ba omen dutela, han, Kanpanzar bestaldera, Debagoiena izeneko lurraldean, indigenek beraien mundu propioa. Kostata, baina zenbait ziegatoko horma birindu eta pasealeku zabal eta erosoagoak eraiki dituztela kartzela barruan. Eta ez duela, han, indigenak, zertan uzurtuta ibili, ez dutela hitza isilpean gorde beharrik, uluka hitz egin dezaketela. Eta zera pentsatu dute hemengo zaharrenek: afrikarrak Europara bezala, harantz abiatuko direla, sikiera espazio irekiagoan bizitzeko aukera badagoela eta. Eta erantzun diote zaharrenek: bozgorailuak sortu dituztela, eta ez ei dela aparailuon hotsa geldiaraz dezakeen hormarik. Eta zera erabaki dute orduan hemengo indigenek: hemen ere bozgorailu indartsuak erabiliko dituztela, egia dela, ez dagoela kartzela honetan aparailuon hotsari eutsiko dion hormarik.

Hemendik, horra: zorianak. Zuen bozgorailuok trokelean fabrikatu, lau haizeetara zabaldu, eta ea indigenon ahots eta hitzaz hizkuntzaren kartzela ia ikustezin hau hausteko gauza garen.



Andoni Urzelai

Ekilan

Martitzena, 21:05ean

Ekintzaileak protagonista

Hileroako azken martitzeneko hitzordura ez du kalerik egingo Alberto Gorritibereak, enpresa inguruko gaiak jorratzeko. Gaur, egubakoitza, Gipuzkoako enpresen IX. sariak banatuko direla eta, jakin badakigu izendatuen artean Debagoieneko enpresa bat dagoela. Hortaz, gonbidatuaz gain, saria ere platoon izatea espero dugu. Horrez gain, erreportaje zabala eskainiko diogu Aretxabaletan zabaldu berri den Zainduz osasun eta fitness zentroari. Ekimen horrek berritasun eta lanaren saria jaso du INEM-en eskutik. Hortaz, ez ahaztu datorren martitzeneko hitzordua.

Goibegirada

Eguaztena, 21:05ean

Komunikazioa aztergai

Eguaztenenerako, Mikel Elizarrek euskal komunikazio esparruaren etorkizunaz berba egingo du, Pello Zubiria Argiako zuzendaria, Edorta Arana Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Jose Felix Azurmendi ETBko Canal Vascoko zuzendaria lagun dituela. Etorkizuneko informazio gizartearen ildoak eta datozten urteotan hedabideen arloan aurrez ikusten den ugartasuna aztertuko da saioan: euskarazko hedabideen egoera, indarguneak eta ahuleziak...



Sarrera doan

Eguena, 21:05ean

Halloween

Oraingo astean ere, Debagoiengan bertatik bertara ibili dira *Sarrera doan* saiokoak. Amagoia Lasagabasterrek, asteburuan izango ditugun kultura hitzordu guztiez informazio zabala eskaintzeaz gain, zinema estreinaldien, musikaren eta azkenaldian argitaratu diren liburuen berri emango dizue.

Saioa eguenean ikusi ez duenak badu aukera asteburuan errepikapena ikusteko, 13:30ean. Besteak beste, Halloween taldearen eta Arantzazuko apostoluen inguruko erreportajea prestatu dute *Sarrera doaneko* kideek.



Asteko programazioa / Martxoa 23-29

EGUBAKOITZA 23	ZAPATUA 24	DOMEKA 25	ASTELEHENA 26	MARTITZENA 27	EGUAZTENA 28	EGUENA 29
13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xelegeberri, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	12:00 Futbola: Real-Osasuna	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta berakatza		13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xelegeberri, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza
13:50 Sarrera doan (errepikapena)			13:50 Astebete	13:50 Goienasport	13:50 Ekilan	13:50 Goibegirada
20:00/20:30: Berriak			19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza
20:30 Non-zer			20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak
20:35 Berriak			20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer
21:05 Astebete			20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak
21:30 Soinuz blai			21:05 Goienasport	21:05 Ekilan	21:05 Goibegirada	21:05 Sarrera Doan 21:05 Soinuz blai

Barruko kontuak

REAL-OSASUNA

Eguazten arratsaldean sekulako giroa izan zen Atxabalpen, Mondragoeko futbol zelaietan. Real eta Osasuna aurrez aurre ikusteko aukera izan genuen. Jokoa nafarrek menderatu bazuten ere, gol aukerak bi taldeak izan zituzten. De Pedrok eta De Paulak oso aukera argiak izan bazituzten ere, Realaren gol bakarra Alberto Alejandrok sartu zuen. Partida GOITBn ikusteko aukera izango duzu domekan, 12:00etan.

DIGITALERAKO APUSTUA

Duda barik, teknologiak asko laguntzen digu guztioi eguneroko lanean, batzuetan buruko mina ere eman arren. Baina, GOITBren hobekuntza teknologia berriei lotuta doa zuzen-zuzen. Horregatik, guk ere digitalerako apustua egin dugu, eta jadanik hainbat kamera eta magnetoskopia digitalekin lanean hasi gara. Goiena Telebistan lanean dihardugunoi lana asko erraztu digu eta kalitatea hobetu da.

Kamera aurrean



"Euskadin, artzainak izaten jarraituko dugu, hor dudarik ez daukagu"

Batis Otaegi | Artzain Eskolako arduraduna
"BERRIAK" (2001-03-21)



"Momentu honetan bost talde gaude jaitsiera postuetarako; espero dut Osasuna eta Real libratzea"

Jose Mari | Osasunako jokalaria
"BERRIAK" (2001-03-21)

Atzeskua

MAIDER OSA

Jon Sarasua/Bertsolaria

Ezagutzen duzu Jon Sarasua?

— Orain dela urte batzuk baino apur bat hobeto.

— **Aspaldian ez zaitugu bertsotan ikusi.**

— Ez. Aurreko urteko maiatzean ebakuntza egin zidaten, eta ordutik hona ez dut kantatu. Batetik, ahotsa ez dudalako lehen bezala; bestetik, ordea, aspalditik nuelako horrelako atsedena hartzeko tentazioa, 19 urte egin ditut-eta plazan.

— **Berriro igoko zara taulagainera?**

— Baliteke. Bertsolaritzak betiko harrapatzen duela esan izan da, baina nik ez dut horrelako itzulminik sentitu. Dena dela, azkenaldian itzalean egoteko geroago eta gogo handiagoa neukan. Gainera, iruditzen zait askotan bertsolaria beste pieza bat dela geroago eta nazkagarriagoa iruditzen zaidan euskal show-an, eta bazterrerago egon behar lukeela. Itzultzekotan, hori guztia kontuan hartuta itzuliko nintzateke.

— **Lanki lantaldean ere**

badiharduzu. Zein helburu du taldeak?

— Ikertegi bat sortu dugu, eta lankidetzaren hainbat dimentsio ardatz izango ditu: hezkuntza, enpresa arloa, nazioarte... Gure ilusioa da hori urteen poderioz indartzea eta unibertsitate honi, kooperatibei eta euskal gizarteari erreflexiorako ahalmenaren ekarpena egitea.

— **Gizarte kapitalistak ez du kooperatibismoa irentsi?**

— Arrasateko kooperatibismoa gizarte kapitalistan sortu zen, eta orain ere hala segitzen du. Kooperatibismoa itsaso kapitalista baten barruan dagoen ontzia denez, galdera da nora doan.

— **Lehenengo eta Hirugarren Munduak ezagutzen ditugu. Bigarren Mundurik badago?**

— Merezi du sortzen saiatzeak. Gu lehenengo munduan gaude, horrek dakartzan inplikazio

guztiekin. Daukagunaren kontzientziatik eta oraindik ere biktima handiagoak diren pertsonetik truketik beti sor liteke zerbait.

— **Globalizazioaren aroak zelan eragingo dio Euskal Herriari?**

— Euskararen etorkizuna sormen borroka izango da. Gai bagara memoria sortzaila garatzeko, aurrera egingo dugu. Sortzen ez den bitartean, kopiatu edo folklorizatu egiten da. Kultura kopiatu-homologatua saihestu behar dugu.

— **Zein aholku emango zenioke hurrengo lehendakariari?**


— Ezer gutxi. Indarrean dauden sakoneko estrategia politikoak ez dira euskararen herriarendako bizigarri. Badaude Euskal Herrian pentsamendu azterna interesgarriak etorkizunari aurre egiteko, baina pentsamendu horiek ez dira pentsabide estratejiko izatera iristen.

“Iruditzen zait askotan bertsolaria beste pieza bat dela geroago eta nazkagarriagoa iruditzen zaidan euskal show-an”

“Euskararen etorkizuna sormen borroka izango da”

► *Atxabaltarra / 34 urte / Bertsolaria*

AIPAGARRI



PEPE RODRIGUEZ ETA MIGUEL LASPIUR

Mondragoe / Udalpekoak


Arrasateko Udalpe elkarteak (bazkide gehien dituen herriko elkarte) Pepe Rodriguez eta Miguel Laspiur omenduko ditu bihar, zapatua, urte-etan elkartearen alde egindako lanagatik. Pepek eta Miguelek 18 urte eman dituzte zuzendaritzan: lehendakari eta lehendakariorde hurrenez hurren. Udalpe 1947an sortu zen, eta gaur egun, kuotarik merkeena duen Mondragoeko elkarte da.



RUPER ORDORIKA

Oñati / Musikoa

Ez, Ruperrek ez du disko berririk kaleratu; ez du, guk dakigula, behintzat, musikagintza lagatzeko asmorik. Kontua da, Bernardo Atxagaren *Etiopiaren* originala berak daukala, eta Zarautzen eratu nahi duten Hizkuntza eta Literaturaren Euskal Museoari eskaini diola.



Arrasate Kirol Proiektua

Mila esker guztioi!

Tau-Baskonia Vs Cafés Aitona-Askatuak
Bakomat Araba Vs Centro Comercial Mendibil
Real Sociedad Vs Osasuna

BABESLEAK

ARRASATE KIROLAK

MUGARRI

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

FAGOR